

4.500 haur
danborra
jotzen biharMaider Hermosa,
Easo ederra ▶

HITZA-REN AGURRA ▶

Laster zure
etxean bertako
euskarazko
egunkaria

Eskuartean daukazun egunkaria, IRUTXULO KO HITZA da; 0 zenbakia. Etorriko dira besteak. Otsailaren erdialdetik aurrera. Egutero.

Hurrengo bi orrialdeetan daude proiektuari eta produktuari buruzko xehetasunak. Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, gizarte eragileek eta Bertako Hedabideek (Euskarazko Komunikazio Taldea) sortu dute IRUTXULO KO HITZA, prentsan herri informazioa euskaraz ematean dagoen hutsunea betetzeko; horrela, Irutxulo-k 1994ko apiriletik hona egin duen bide bikainari segituz, egunkariak astekariaren lekua hartuko du; era horretan, euskarak pauso handia egingo du aurrera.

IRUTXULO KO HITZAK hiriko informazioa emango du euskaraz, astean sei aldiz. Kalitatezko produktua izatea du helburu nagusi, eta, horretarako, auzoek, hiri mailako informazioak, kirolek, kulturak eta abarrek tokia izango dute egunerokoan. Donostian egunkari erreferentziala izatea lortu nahi dugu: helburu hori lortzeko beharrezkoa izango da, eguneroko lana ez ezik, denen laguntza ere: eragileena, herritarrena eta erakunde publikoena.

Laster arte. ▶ 2-3

Danborradek harrera egin diote IRUTXULO KO HITZARI

ATXIKIMENDUA ▶ 62 danborradak eman diote babesa egunerokoari, eta «gure festen eta ohituren sustatzaile» izateko eskatu diote ▶ 4-5



Astelehen iluntzean Okendo kultur etxean egin zuten ekitaldia HITZAREN aldeko Donostiako hainbat danborradak. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

ANTIGUA ▶

**Gaur hasita,
igandea arte
jaia nagusi**

Koadrilen Egunak
zilarrezko ezteiak
ospatuko ditu ▶ 10-11

KIROLA ▶

**Belen
Eskisabel,
Saharara**

Hango maratonia
korrituko du otsail
bukaeran ▶ 12

BEGIRISTAIN
I N M O B I L I A R I A

1975etik artekaritzan,
orain atari berri bat zabaldu dugu
zure zerbitzura: www.ataria.net
Bertan ehunka higiezin berri
aurkituko duzu.



Zure inmobiliaria etxean.

Askatasun hiribidea, 7 - 3. D - 20004 Donostia - ☎ 943 42 82 82
info@begirstain.com

**Hizkuntzak
munduari
begiratzeko
leihoak
dira**

ANTIGUAN
Guridi Maisua z/g
20008 Donostia
tel. 943 21 99 07

ALDE ZAHARREAN
Kanpandegi 1
20003 Donostia
tel. 943 42 43 66

e-posta > legazpi6@euskalnet.net


LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

KOMUNIKABIDEAK ▶

Hemen da Donostiako egunkaria

Aurkezpen zenbaki hau eta gero, otsailean hasiko da IRUTXULO KO HITZA eguneroko martxan



IRUTXULO KO HITZA abenduaren 29an aurkeztu zuten. Eserita, ezkerretik eskuinera, Aitziber Iartza *Irutxulo* astekariko zuzendaria, Dani Goñi Bagerako lehendakaria, Joanmari Larrarte EKTko Administrazio Kontseiluko idazkaria eta Isidro Ioldi Donostiako Berriak Kultur Elkarteak kidea.

ANDER USABIAGA

Hemen da IRUTXULO KO HITZA Donostiako egunkaria. Orain arte *Irutxulo* astekariaren argitaratzaile Bagera Donostiako Euskaltzaileen Elkarteak, *Berria* egunkariaren argitaratzaile Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKTk, Bertako Hedabideen bitartez) eta Donostiako 32 gizarte eragilek 0 zenbaki hau kaleratu dute eta gogor lan egingo dute datozen egunetan, otsailaren erdialdetik aurrera euskarazko egunkaria donostiar guztien eskura egon dadin.

IRUTXULO KO HITZA Donostiako informazioaren esparruan zegoen hutsunea betetzera dator. Azken hamar urte eta erdian, *Irutxulo* aldizkariak hirian sortutako albisteak txukun eskaini ditu. Astean behin eman du aukera hori, ordea. Ez zegoen, beraz, bertako eguneroko informazioa euskaraz jasotzerik. Horretaz jabeturik, Bagerak eta EKTk Donostiako informazioa jorratuko zuten egunkari baten proiektua mamitzeari ekin zioten elkarrekin eta, ondoren, poliki-poliki, gizarte eragileak batu zaizkie.

Esan bezala, egitasmoak hiru ardatz ditu: Bagera, EKTko Bertako Hedabideak eta gizarte eragileak. Bagerak enpresa argitaratzailearen %40 izango du, Bertako Hedabideek ere %40 eta gizarte eragileek %20. Egitasmoan parte hartzeko, gizarte eragileek Donostiako Berriak Kultur Elkarteak sortu zuten abenduan; bertako kide izateko zerrenda zabalik dago.

Erronka ederra

IRUTXULO KO HITZA egunero izango da kalean, astearteetan izan ezik. Astelehenean euskarazko beste argitalpen batzuek kale egin ohi dute, baina Donostian argitaratu egingo da HITZA, asteburuko kirol informazioari eta, batik bat, Realari tarte za-

‘Irutxulo’, egunerokora

Bagera Donostiako Euskaltzaileen Elkarteak *Irutxulo* astekaria sortu zuen duela hamar urte; urteotan *Irutxulo*-k, Bageraren ustez, «milaka donostiar euskaraz irakurtzen ohi-tzea lortu du eta euskarazko informazioaren oinarria jarri eta sendotu du Donostian». Beraz, Bagerak «balorazio ona egin du urteotako lanaz».

Urtarrilaren 14an banatu zen azkeneko aldiz *Irutxulo* astekaria, otsailetik aurrera egu-

neroko bihurtuko delako: IRUTXULO KO HITZA. «Orain astekariak lekukoa emango dio egitasmo handiago bati: IRUTXULO KO HITZARI. Donostiako euskarazko egunkaria, astekariaren tokia betetzera eta zabaltzera dator, haren helburu berak izango ditu eta, beraz, Bageraren ikuspegitik, aurre-rapauso nabarmena da».

Hamar urteotan, *Irutxulo* astekariaren 477 zenbaki atera ditu Bagerak. ◀



Irutxulo-ren 1. zenbakia (94-04-15) eta azkena (05-01-14).

B R A N K A

San Sebastian egunean, ondo pasa!

DONOSTIA

E. Txillida pasealekua

(Haizeen orrazia)

TEL.: 943 317 096

GOMISTEGI-Eraikuntza berria:

DONOSTIAN - MB.03 (Pasai San Pedro Hiribidea)

1,2,3 eta 4 logelako etxebizitzak, garajeak eta lokalak

Sustatzailea: **GOMISTEGUI, s.l.** (ORAUNE PROMOCIONES, S.L. - ETXE ONENAK, S.A.)

Irungo Plaza, 5-1.B. 20011 Donostia. Tel.: 943 46 20 86 - Faxa: 943 46 15 29

bala eginez. Bestalde, Aste Santuan eta ondorengoan eta urriko lehendabiziko bi asteetan ez da kaleratuko. Orrialde kopuruari dagokionez, egunkariak 12 orrialde izango ditu; dena dela, astelehenean zortzi argitaratuko ditu.

Donostiar guztiek jaso dezakete euskarazko egunkaria. Horretarako, 943 30 43 46 telefono zenbakira deitu besterik ez dute (*Irutxulo* eta *Berria*-ko harpidedunek ez dute deitu beharrik). Izena ematen dutenek doan jasoko dute argitalpena. Hala ere, egitasmoak ezinbestekoa du herritarren laguntza ere; horregatik, irakurleei borondatezko diru laguntza eskatuko zaie aurrerago.

Begibistakoa denez, tamaina handiko proiektua da. Donostiako euskarazko prentsak inoiz izandako handiena. 0 zenbaki honekin, 50.000 ale banatu dira Donostiako kaleetan gaur. Eta otsaileko lehen zenbakiek ere banaketa zabala izango dute. Helburua egunero 14.000 ale banatzea da, 14.000 etxetara iristea; hau da, euskaraz irakurtzeko gai diren donostiarren %70arengana. Erronka handia da, beraz. Handia bezain ederra. Eta guztien babesa eta laguntza beharrezkoa izango da helburua lortu ahal izateko.

IRUTXULOKO HITZA-REN BAZKIDEAK ▶

BAGERA
EUSKALTZALEEN ELKARTEA

«IRUTXULOKO HITZAK ekarpen handia egin diezaioke euskararen normalizazio prozesuari Donostian. Egitasmoak itxaropena piztu du eta, horregatik, argi dugu donostiarren, eragileen eta erakunde publiko eta pribatuaren laguntza izango duela».

BERTAKO HEDABIDEAK
EKT

«EKTrentzat ildo nagusieta-koa da toki mailako egunkariena: elkarlana sustatzen ari garelako euskara elkarteekin eta eragileekin, tokiko informazioa euskaraz eman dezakegulako horrela... Donostian ere sortu dugu Hitza, eta ilusio handiz gaude».

DONOSTIAKO BERRIAK
ERAGILEEN KULTUR ELKARTEA

«IRUTXULOKO HITZAN parte hartzea erabaki dugu Donostiako gizarte eragileok, euskararen normalizaziorako arrapauso garrantzitsua delako eta eragileei hitza emateko plaza garrantzitsua ere bai. Geure babes soziala eta ekonomikoa emango diogu».

EGUNKARIAREN SAILAK ▶

Iritzia. Tarte esanguratsua izango du: iritzi artikuluak, zutabe finkoak, irakurleen gutunak...

Hiri mailako informazioa.

Donostia osoan eragina izan dezaketen berriak jorratuko ditu eta Udalean sortutako arreta berezia eskainiko die. Egunerokotasunari estu-estu lotuta ez dauden gaietan ere sakonduko du; Donostiako historiak, adibidez, tokia izango du.

Auzoak. IRUTXULOKO HITZAREN ardatzetako bat izango da. Auzoetako gertakariei buruzko informazioa gertutasunez eskainiko du. Helburuetako bat auzotarrei hitza ematea da.

Kirola. Garrantzia izango du. Realak tarte zabala izango du, baina gainerako kirolei ere arreta eskainiko zaie: arrauna, saskibaloia, eskubaloia, pilota, atletismoa...

Kultura-aisialdia. Kultur ekitaldi guztien oihartzuna jasoko du HITZAK.

Zerbitzuak. Egunero bi orrialde: zinema karteldegia, agenda, hitzez hitzeko iragarkiak, guardiako farmaziak...

Bestelakoak. Batez ere, herritarrengandik gertu daudenek: osasuna, elikadura, moda, kontsumoa, sexua, zaletasunak... Umoreak ere tartea izango du.

DATUAK ▶

Egunak. Asteazkenetik astelehenera argitaratuko da.

Orrialdeak. Egunero 12 orrialde; astelehenetan 8.

Tirada. 14.000 ale banatzea da helburua.

Izen-ematea. Donostiar guztiek jaso dezakete, doan.

IZEN-EMATEA ▶

943 30 43 46

telefonora deitu behar da. IRUTXULOKO HITZA jaso nahi duenak (doan da) horra deitu behar du; *Irutxulo* astekariko eta *Berria*-ko harpidedunek ez.

ERAGILEAK ▶

- ▶ Urrats euskaltegia.
- ▶ Ilazki euskaltegia.
- ▶ AEK.
- ▶ Legazpi 6 euskaltegia.
- ▶ Hitzez euskaltegia.
- ▶ Ulialde euskaltegia.
- ▶ Herri Ametsa ikastola.
- ▶ Zuriola ikastola.
- ▶ Ekintza ikastola.
- ▶ Barandiaran Lizeoa.
- ▶ Arrano Beltza euskaltokia.
- ▶ Kai Harripe euskara elk.
- ▶ EHE.
- ▶ Mamelena elkarte.
- ▶ Ikasbide kultur elkarte.
- ▶ Egiaiko Arrano elkarte.
- ▶ Antiguotarrak elkarte
- ▶ Trebeska dantza taldea.
- ▶ Añorga Kultur eta Kirol elk.
- ▶ Igeldoko Herri Kontseilua.
- ▶ Antiguoko.
- ▶ Askatuak.
- ▶ Fortuna.
- ▶ Ur Kirolak.
- ▶ Donostia Arraun.
- ▶ Bera-Bera kirol elkarte.
- ▶ Herrera kirol elkarte.
- ▶ Donostiako Kaleren Hockey Kirol Taldea.
- ▶ Altzako Bizarrain euskara taldea.
- ▶ Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa.
- ▶ Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- ▶ Bankako Euskara Taldea.

EROSKI

Eroski Urbilek eta Eroski Garberak donostiar guztioi San Sebastian egun zoriontsua opa dizuete

IRUTXULOKO HITZA ▶



62 danborradak eman zioten babesa astelehen iluntzean IRUTXULOKO HITZA egunkariari, Okendo kultur etxean egindako agerraldian. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

IÑAKI LAZKANO

Astelehen arratsaldean, Donostiako danborradek IRUTXULOKO HITZARI ongiatorria egin zioten Okendo kultur etxean. Donostiako danborrada askok ordezkarria bidali zuten Okendora egunkari berriaren etorrera ospatzeko eta babesa emateko. Guztira helduen 62 danborradak eman zioten babesa, eta hainbat haur danborradetako ordezkariek ere han ziren.

Danborradek ongiatorria egin diote IRUTXULOKO HITZARI

San Sebastian eguneko protagonistek harrera egin eta babesa eskaini diote euskarazko eguneroko berriari

Danbor hotsak IRUTXULOKO HITZAREN taupadekin nahasiko dira San Sebastian egunean. Danborren burrunba basatiak arnasa emango dio egunkari berriari. Danborradek horixe utzi zuten agerian astelehenean; danbor eta kupel hotsez ongiatorria egingo diotela egunkariari. «Gure festen eta ohituren sustatzailerik izatea nahi dugu». Danborradek ederki hartu dute proiektua, eta HITZA ere tamainako erantzuna ematen ahaleginduko da.

La Barandilla
Janarietan espezializatuak

Más
KALITATEA

Urbiera kalea, 34
20006 Donostia
(Gipuzkoa)

Tel.: 943 47 36 43
Faxa: 943 45 26 65
www.labarandilla.com

Eskulanen Etxea - casa de labores

Elkano 5 behea - 20004 Donostia (Gipuzkoa)

www.casalabores.com

Toki aproposa iragartzeko

hitza

ALE
GARRAIOAK

Iparragirre, 15 behea
Tel.: 943 275 996
943 279 050
Faxa: 943 285 376
GROS (Donostia)

Zorionak Donostia!!
San Sebastian eguna 2005

EUSKADIK BEHAR ZAITU

ATXIKIMENDUAK ▶

- ▶ Aizepe.
- ▶ Amara Kirol Elkartea.
- ▶ Amigos del Europa.
- ▶ Anastasio Senior.
- ▶ Anastasio Junior.
- ▶ Anastasio Emakumeak.
- ▶ Antonio Bar.
- ▶ Antxeta.
- ▶ Araba Etxea.
- ▶ Arrano Beltza.
- ▶ Artzak Ortzek.
- ▶ Atobxa erreka (Añorga Txiki).
- ▶ Axular Lizeoa.
- ▶ Bidebieta.
- ▶ Catedral Centenario.
- ▶ CD Donosti Anoeta.
- ▶ Club Ciclista Donostiarrak.
- ▶ Donostiako Atletiko.
- ▶ Egiaiko Arrano Elkart.
- ▶ Elkarre Gastronomikoa.
- ▶ Esperanza.
- ▶ Erreka Mari Kultur Elkartea.
- ▶ Gaztedi.
- ▶ Gaztelubide.
- ▶ Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartea.
- ▶ Gizartea.
- ▶ Gurea.
- ▶ Haizalde Elkartea.
- ▶ Herria Elkartea.
- ▶ Ikasbide Kultur Elkartea.
- ▶ Iriyarena.
- ▶ Irurak.
- ▶ Ixas Gain.
- ▶ Jatorra.
- ▶ Jesuitak.
- ▶ Jolastokieta.
- ▶ Kainoieta.
- ▶ Kondarrak.
- ▶ Kresala.
- ▶ La Espiga.
- ▶ La Gaviota.
- ▶ Lagun Artea.
- ▶ Lagun Berriak.
- ▶ Larratxo.
- ▶ Loiolatarra.
- ▶ Lurgorri.
- ▶ Maria Reina Egiako Tolosarrak.
- ▶ Mons.
- ▶ Ollagorria.
- ▶ Ondar-Gain Elkartea.
- ▶ Santiagomendi.
- ▶ Txubillo.
- ▶ Union Artesana.
- ▶ Ur Zaleak.
- ▶ Xarmanta.
- ▶ Zulo-Zahar.
- ▶ Zurriola Ikastola.

INKESTA ▶ ZER IRUDITZEN ZAIZU HITZA-REN SORRERA?

LUIS MOKOROA
ELKARTE GASTRONOMIKOA

«HITZAren sorrera berri pozgarria da»



«Pixkanaka eus-kara tokia berreskuratzen ari da. Eta, noski, albistea oso pozgarria da. Donostiak beti mantendu izan du euskara. Euskarazko egunkaria tresna eraginkorra izango dela uste dut. Oso berri pozgarria da.»

ION MANTEROLA
KAINOIETA ELKARTEA

«Urrats handia izan daiteke HITZArena»



«Donostian ere euskarazko eguneroko bat kaleztatzea oso garrantzitsua da.»

Bertako albisteak euskaraz irakurtzeko aukera izatea, alegia. Egunerokoa euskararen normalizaziorako urrats handia izan daitekeela uste dut.»

BAGERA,
GU ERE BAI

ONDO PASA!

Aratz erretegia

Donostia Egun Bezperako Afaria

MENUA: 66 € (11.000 pts) + % 7 BEZA

Gauerdian danborrada jotzeko, makilak, txapela eta danborra banatuko dira.

Modesto izango dugu goizalde arte

Tel.: 943 21 92 04 - 943 21 99 89

DONOSTIA

Urtean zehar zenbat arazo dauzkagun, denentzat zoriona zaila da gaur egun, baina umorea eta danbor hotsak lagun, gure festa handi hau gozatu dezagun.

ONDO PASA Donostiako Ezker Batuaren partetik

ezker batua  berdeak
www.ezkerbatua-izquierdaunida.org

www.kutxa.net

 kutxa

MARTIN BERASATEGI ▶ SUKALDARIA

ORREAGA ARANBURU

Parte Zaharrean jaio eta hazitako sukaldariak, Urrezko Danborra jaso aurreko egunetan, HIRZAREKIN egoteko tartea hartu du.

Ordu gutxi falta zaizkizu Urrezko Danborra jasotzeko. Zer moduz zaude? Urduri?

Momenturik ederrena izango da. Sari asko jaso ditut profesional gisa, baina hau ez da sari hutsa. Donostian jaio eta hazi naiz. Aukera dudana guztietan, hiri zoragarri honekin gozatera nator. Beraz, sari hau jaso dezakedan bereziena da. Hiri hau bihotzean duen edonori gerta dakiokkeen gauzarik ederrena da.

Saria eskertzeko hitzaldia emateko prest?

Oso zirraragarria izango da niretzat, eta badakit ez naizela luze hitz egiteko gai izango. Hori dut pena bakarra: zirrarak ez didala saria behar bezala eskertzen utziko.

Non gordeko duzu Urrezko Danborra?

Lasarteko jatetxearen sarreran ala neure etxean; oraindik ez dut erabaki. Ziurrenik jatetxearen sarreran, ordu gehien bertan pasatzen dudalako.

Hiru danborradatan jotzen duzu... Ez al zara nekatzen?

Urtero bandera jasieran iza-

«Zirrararak ez dit saria behar bezala eskertzen utziko»

Bihar jasoko du Urrezko Danborra; saria Donostia bihotzean duen edonori gerta dakiokkeen onena dela dio

ten naiz, Gaztelubiderek. Baita jaitzian ere, Union Artesanarekin. 16:30ean Zubi Gain ekarteko danborradan jotzen dut, koadrilako lagunekin. Ez naiz batera nekatzen. Niretzat urteko 24 ordu onenak dira. San Sebastian eguna Donostiako jairik onena da, eta, Donostia, gehien maite dudana hiri, eta gozatzeko saiatzen naiz.

Hiru danborrada, hiru jantzi. Ez al zara inoiz nahastu?

Jantzi bakoitza lagun batek gordetzen dit. Eskerrak horri, nahiko despistatua naiz eta.

Bandera jasoera ala jaitziera. Zein da bereziena?

San Sebastian eguna oso polita da, hasieratik bukaerara. Eta bandera jasotzea eta jaitzea bereziak dira biak.

Noizko emakumeak Union Artesanaren?

Ikusiko dugu. Niri dena ondo iruditzen zait, eta jarrera irekia



IRUTXULO

daukat. Nire ustez, elkarrekin eta hiriak berak ere inoiz baino jarrera irekiagoa dute. Gauzak hitz egin, adostu eta elkarrekin erabaki behar da. Ika-mikarik sortu gabe.

Eta Gaztelubiden?

Aukera guztiak zabalik daude elkarrekin gintuzten. Emakumeek nahi badute, eguna iritsiko da.

Entseiatzeko astirik bai?

Ez nahi beste. Baina nire bizimodua horrelakoa da.

Une garrantzak ere izan dituzue azken aldian; Espainiako Autzitegi Nazionalera joan beharra, esaterako.

Une gogorra izan zen, bidegabe tratatu gintuzten. Maite dugun lurraren eta jendearen alde lan egitea da gure bekatu bakarra. Lan horri esker jendearen onospena lortu dugu. Beti Euskal Herriaren kontra egiten dutenek min egin nahi ziguten, gure lana euskal kulturaren parte delako. Ezin dut euskal herritar petoa naizela ezkatatu. Horregatik, inoiz pentsatuko ez nuen egoera ezagutu nuen.



**EL ENSANCHE
taberna**

San Bizente, 1 (Parte Zaharra)
DONOSTIA

relojberri
cate / pub

www.relojberri.com
Bulebarra 20, (Alde Zaharra) 20003 Donostia Tel.: 943 42 97 09

**EKAIN
ARTE LANAK**

**Maria Txillidaren
erakusketa**

20003 DONOSTIA (Parte Zaharra)
Iñigo, 4 • Tel.: 943 421 729
ekainartelan@euskalnet.net
www.ekainartelan.com

Herri Irratia

1224 OM
94.8 FM

ONGI ETORRI
HERRI IRRATIAREN PARTEZ

Grupo Leyola Media
www.herri-irratia.com
tel: 943 42 94 94 / herri@irratia.com

Belfast Irish Tavern

Ikatx kalea, 9
DONOSTIA

LANPOSTU ZIURRA NAHI DUZULA?

Administrazio laguntzaileak.
Lanpostuetara laster sartzeko. Udalak: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrozale, Mutriku, Zizurkil, Mendano eta Anoeta. Informazioa: 943 43 41 27.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.
Libre dauden lanpostuak betetzeko: ikastetxe, erresidencia, Eusko Jaurlaritza. 943 43 41 27.

Gidariak.
Lanpostuetan berehala sartzeko. Udaletxeetan, Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 43 41 27.

Mantenua. Peoiak, soldatzaileak, elektrizistak, igeltsuak eta iturginak. Erakunde publikoetan libre dauden lanpostuak. Informaziorako telefonoa: 943 43 41 27.

Haur hezkuntza. Berezia, haur eskolak. Lanpostuak libre, haurtzaindegia publikoetan, haur eskoletan. Informazioa: 943 43 41 27.

Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Lanpostu finkoak ikastetxeetan, erresidenciaz, Eusko Jaurlaritzan. Informazioa: 943 43 41 27.

Laborategiak. Osakidetza, araztegiak. Plaza libreak udaletxe, Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. 943 43 41 27.

Basozainak. Udaletxe, Aldundi, Eusko Jaurlaritza, Administrazio publikorako. 943 43 41 27.

HEMEN DUZU AUKERA PAREGABEA

HAUR DANBORRADA ▶

Ederretan ederrena

La Salleko Mainer Hermosa izango da aurten Easo ederra

ASIER COLOMA

Haur danborradako konpainiak eguerdiko 12:00etan abiatuko dira udaletxe aurretik. Aurten 4.500 danborrarik parte hartuko dute, eta kargu nagusiak ere hantxe izango dira: Jon Juaristi jenerala, Iñigo Gon-

zalez laguntzailea, Mainer Hermosa Easo ederra eta Vanessa Carton danbor nagusia.

Mainer Hermosak 12 urte ditu, eta La Sallen ikasten du. «Abendu hasieran, Easo Ederra ni izango nintzela erabaki zuten, eta poz handia hartu nuen. Oso gustura nago», aitortu

tu digu egiatar atsegin honek. Egun handia ate joka dagoen arren, Mainer lasai dago. «Oraindik ez nago urduri. Udaletxeko balkoira igotzerakoan izango dira komeriak! Euskaraz gaztelaniaz baino errazago esango dut esan beharrekoa. Ohituagoa nago eta».

TALDEEN ZERRENDA ▶

1. Monte Igeldo jolas parkeko gastadoreak.
2. Euskal Bilera.
3. Marianistak (1).
4. Marianistak (2).
5. La Salle (1).
6. La Salle (2).
7. Jesusen Bihotza (1).
8. Jesusen Bihotza (2).
9. San Ignazio (1).
10. San Ignazio (2).
11. Hipikako zaldiak, jenerala eta laguntzaileak.
12. Herri Ametsa Ikastola.
13. Zuhazti Eskola Publikoa.
14. Arantzazuko Ama.
15. Intxaurren katekesia.
16. Mendiola-Bidebieta.
17. San Luis-La Salle.
18. Maria Reina.
19. Erain-Eskibel Ikastetxea.
20. Mariaren Bihotza.
21. Jakintza.
22. San Jose de Calasanz.
23. Herrerako ikastetxe publikoa.
24. Ekintza (1).
25. Ekintza (2).
26. Santo Tomas Lizeoa (1).
27. Santo Tomas Lizeoa (2).
28. Colegio Aleman Ikastetxea.
29. Zurriola Ikastola.
30. Compañía de María.
31. Santa Teresa de Jesus.
32. Maria Auxiliadora.
33. Mary Ward.
34. Axular Lizeoa.
35. Colegia Ingles-San Patricio.
36. La Asuncion Ikastetxea.
37. Belen Ikastetxea.
38. The English School.
39. Amara Berri ikastetxea (1).
40. Amara Berri ikastetxea (2).
41. El Carmelo Ikastetxea.
42. Errekalde elkarte.
43. Ikasbide ikastola Easo Ederraren karroza eta laguntzaileak.
44. Aitor Ikastola.
45. Arantzazuko Ama Ikastola.
46. Jesuitinas ikastetxea.
47. La Anunciata.
48. Ibai Lizeoa.
49. Manuel Larramendi Ikastola.
50. Oleta Berri.
51. Orixe Ikastola.

KULTURA ▶


Danbor hotsen oihartzun historikoa, euskaraz

Felix Marañá idazlearen 'Rataplan' liburua euskaratu du Alberdania argitaletxeak

ERREDAKZIOA

Alberdania argitaletxeak Felix Marañá idazle donostiarraren *Rataplan. Danbor hotsa Donostian (1836-1936)* liburua kaleratu berri du, Euskararen Udal Patronatuaren laguntzarekin. Lana Bertako sailean argitaratu dute, eta iaz kalera-tutako *Rataplan. Perfiles de la tamborrada Donostiarra (1836-1936)* liburua euskarazko itzulpena da. Liburuak 1836 eta 1936 bitarteko Donostian barna murgiltzen gaitu. Marañak denetarik bildu du bertan; tartean, San Sebastian eguneko festaren jatorriari buruzko hainbat ikuspegi: Eugenio Gabilondo *Calei-Cale*-rena, Jose Berru-zorena, Jesus Maria Arozame-narena, Jose Maria Donosty-rena eta Javier Maria Sadare-na. Raimundo Sarriegiren omenezko atala ere egin du, eta baita danborradaren koa-dro historikoa ere.

LIBURUA ▶



Liburua. *Rataplan*. Danbor hotsa Donostian (1836-1936).
Egilea. Felix Marañá.
Itzultzailea. Rosetta Hizkuntz Zerbitzuak.
Diseinua. Antton Olariaga.
Argitaletxea. Alberdania, Euskararen Udal Patronatuaren laguntzarekin.
Prezioa. 8,5 euro.

**ONDO PASA,
SAN SEBASTIAN
EGUNEAN!**

INAUSTI

Zuatzu kalea, 4. Easo eraikina - 2 eta 3 lokalak
20018 Donostia • Tel.: 943 31 39 33
info@inausti.com www.inausti.com

20th January

Enjoy
San Sebastian
Day!

LACUNZA

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA

Errialdea	Amara	Benta Berri	Gros	Irun
Urbietia 16, 1 Tel.: 943 42 77 07	Moraza 5, behea Tel.: 943 47 12 91	Madrid etorbidea, 8 Tel.: 943 45 26 67	Xalbador Bertsolaria 8, behea Tel.: 943 31 38 28	Secundino Esnaola, 39 Tel.: 943 29 72 71

Jose Ramon Agirretxe, 1 atzek.
Tel.: 943 63 99 90

Zorionak
Donostialdean
behar genvuen
HITZA!

LAB

**APARTHEID-aren
GAINETIK, EUSKARA OFIZIALA!**

943 27 58 21
Zabaleta kalea 49, 11. lokala
bagaboga_3@hotmail.com

bagaboga

HELDUEN DANBORRADA ▶

Badator danbor burrunba

10.500 danborrarik txoko guztietara barreiatuko dituzte Sarriegiren doinuak, gaur gauean hasita



Urtero bezala, Konstituzio Plazan giro ederra izango da gaur gauerdian. IRUTXULO

Nazioarteko danborrada

Easo Institutu Politeknikoko danborradan, donostiarrek ez ezik, kanpotik etorritakoek ere hartuko dute parte, ohi bezala

A. COLOMA

Easo Institutu Politekniko-ko irakasle, ikasle, ikasle ohi eta langileek hirugarren aldiz parte hartuko dute aurten danborradan. Danborradaren arduradun Antonio Lopezek dioenez, «eskolako jendeak elkar ezagutzea dugu helburu nagusi». Konpainia 76 lagun inguruk osatzen dute. Easo Politeknikokoa oso danborrada berezia da. Izan ere,

partaide gehienak donostiarrek diren arren, kanpotik etorritakoak ere ez dira gutxi. «Aurten ere badugu donostiarra ez den jendea: argentinar bat, brasildar bat eta marokoar bat, esaterako. Normala da, gure eskolan ikasle atzerritar mordoak dugulako», dio Lopezek.

Alvaro Odriozola 34 urteko argentinarra da: «Irailean hasi nintzen hemen ikasten. Dena dela, lehenik ere banuen dan-

borradaren berri. Aita euskalduna dut, bilbotarra». Odriozola pozik dago danborradan parte hartuko duelako.

Tarik El Ghazi marokoarrak, berriz, hirugarren aldiz joko du aurten. «Casablancatik Donostiara etorri nintzen ikastera. Irakasle batek bultzatuta hasi nintzen». Tarik sekuitan hartu zion tamaina danborrari: «Beste kultura batzuk ezagutzea oso gogoko dut, eta ez nuen bitan pentsatu». ◀

ASIER COLOMA

Hemen da donostiarrok denbora luzean espero ohi dugun eguna: San Sebastian eguna. Aurten, helduen 95 danborradek girotuko dituzte Donostiako kaleak. Gehienak mistoak izango dira: 58. Beste 36 soilik gizonak osatutakoak izango dira, eta, azken urteotan bezala, emakumez osatutako konpainia bat ere izango dugu: emakumeen Anastasio danborrada. Guztira 10.446 lagunek joko dute danborra —edo kupela— helduen danborradetan. Haietatik 7.071 gizonak izango dira (%68), eta 3.375, emakumeak (%32). Horrez gainera, 1.646 musikaririk parte hartuko dute, Sarriegik idatzitako musika joaz.

Danborrada berriak

Urtero bezala, aurten ere danborrada berriak izango ditugu. Hiru taldek joko dute aurten lehen aldiz: Istingorra-k, Gurea-k eta Kursaal Elkarteak. Istingorra Antiguako elkarterik zaharrena da; 1931n sortu zuten. Hala ere, aurten irtengo dute aurrenekoz. «Danborrada osatzen dugun 86 kideak, gizonak guztiak, sukaldari jantziko gara. Datorren urtean, ordea, danbor jotzaileek Napoleonen garaiko jantziak eramango dituzte soinean», dio Javier Marresma Butron danbor nagusiak. Istingorrako kideek Tximeleta txarangakoak izango dituzte bidaide.

Grosek ere danborrada berria ezagutuko du aurten: Kur-

DATUAK ▶

Helduak. Helduen danborradan 10.446 lagunek joko dute danborra.
Gizonezkoak. %68 (7.071), gizonezkoak izango dira.
Emakumeak. 3.375, emakumeak (%32).
Taldeak. 95.
▶ Danborrada mistoak: 58.
▶ Gizonezkoek bakarrik osatutakoak: 36.
▶ Emakumeek bakarrik osatutakoak: 1.

saal Elkarteak, Gipuzkoako Peritu eta Industria Injineru Teknikoen Elkargo Ofizialaren danborrada. «Gurea danborrada berezia da; danborradaren partaide izateko, Injineruen Elkargoko kide izatea beharrezkoa da», azaldu digu danborradako kide Jose Miguel Gallekok. Guztira, 60 gizonak eta sei emakumeak parte hartuko dute Kursaal Elkarteak. Danborradarako propio sortutako 21 musikariren banda joango da haiekin.

Gurea-ko altzatarrek ere lehen aldia izango dute aurten. «Altzako Koxkorra danborradako kide ohiak osatzen dugu, batik bat. Baina primeran moldatzen gara gure aurreko danborradakoekin», azaldu du Gurea elkartearen lehenaldakari Joaquín Luhiak. 40 gizonak eta 23 emakumeak osatzen dute danborrada, eta denak sukaldari jantziko dira. «Lehen aldia denez, Urnietako Urdanbor danborradako kideek lagundu digute».

Škoda MENABI



ikuspuntu ezberdinarekin.

Ongi Etorri Donostiara... HITZA

DANBORRADAK ▶ TALDEEN IRTEERAK**AIETE**

17:00. Axular, Arostegi 10.

ALTZA-BIDEBIETA-HERRERA**00:00.**

▶ Leosiñeta, Txirrita Bertsolaria pasealekua.
▶ Boskotarrak, Kasares pasealekua 143.
▶ Altzako Koxkorra, Txapin Ene/Larratxo pasealekua.
▶ Jolastokieta Jolastokieta plaza.
▶ Gurea Altza pasealekua, 4. zenbakia
17:30. Bidebieta, Serapio Mujika kalea.

AMARA

23:45. Donosti C.D., Felipe IV hiribidea 13.
00:00. Santiagomendi, Javier Barkaiztegi kalea.
01:00. Amara Kirol Elkartea, Osasun iturri kalea.
08:30. Vasconia, Arroka kalea, 6. zenbakia.
11:45. Katalina Erauso, Katalina Erauso kalea.
15:30. DYA, Mendigain kalea.
16:30. Txubillo, Easo plaza.
16:45. Ikasbide Kultur Elkartea, Isabel II hiribidea.
17:00. Lagun Berriak, Madril hiribidea 22-24.
18:30.
▶ Abandotarra, Bizkaia pasealekua.
▶ Urtoki, Caracasko konpainia kalea, 1.
20:00. Amara Berri G.E., Amara Berri ikastetxea.
21:00.
▶ El Sauce, Sahats plaza.
▶ Politekniko Easo, Politekniko Institutuan.

ANTIGUA-IBAETA

00:00.
▶ Sansustene, Sansustene-Matia.
▶ Atotxa Erreka, Añorga hiribidea.
▶ Tenis Elkartea, Tenis Elkartean.

00:30. Zubimusu Elkartea, Ondarreta pasealekua 10.
07:00. Antiguako Gazteen Danborrada, Alfonso XIII.
10:30. Ibaeta-Ibadan, Espiritu Santuaren eliza.
11:00. Istingorra, Istingorra kalea 7.
16:45. Ekintza, Tontorgoxo, 18.
17:00. Benta Berriko Lagunak, Jose Maria Sert kalea, 1.
18:00. Antiguoko, Simona de la Just kalea 4.
18:30. Unibertsitateko Danborrada, Oñati plaza.
21:00. Baso Etxea, Joan de Garai kalea 4.

EGIA

00:00. Ur Zaleak, Iruresoro plaza.
08:00. Donosti Gain, Ametzagaina hiribidea 28.
15:30. Eskaut Gia, (elbarrituen danborrada), Onkologikoa.
16:00.
▶ Maria Reina-Egiako tolosarrak,
▶ Maria Erregina parrokian
21:00. Arrano Elkartea, Karmengo Ama, 32.

ERDIALDEA

00:00.
▶ Ondar-gain, Marina kalea 4.
▶ Los Corcones, Bergara k. 11.
▶ Lurgorri, Hernani kalea 17.
01:30.
▶ La Espiga, San Martzial kalea 48.
▶ Cantabrico, Askatasunaren hiribidea 24.
02:00. Antonio Bar, Bergara kalea 3.
10:00. Jatorra, Larramendi kalea 14.
16:00. Europa, San Martin kalea.
16:30. Marianistas, Aldapeta kalea
17:00.
▶ Anastasio S, Easo kalea 9.
▶ Anastasio J, Easo kalea 9
▶ Anastasio (emakumeak), Easo kalea 9.
▶ Gaztedi, Okendo kalea 22.
17:45. Gizartea, San Martin kalea 15.



Baso Etxea danborrada. IRUTXULO

19:00. Donostiako Atletiko, Vinuesa plaza, San Martin.
20:00.
▶ Lagun Artea, Urbieta kalea 59.
▶ Catedral Centenario, Urbieta 36.

MARTUTENE-LOIOLA

00:00.
▶ Loiolatarra, Aralar mendikatea kalea.
▶ Martutene, Gasolinera aurreko parkea.
22:00. Zuhaitz, Atari Eder/Zubiondo.

GROS-SAGUES

23:30. Umore Ona, Aita Larroka kalea.
00:00.
▶ Antxeta, J.M. Barandiaran kalea 14.
▶ Txofreko Lagunak, Nafarroa Beherea plazan
▶ Lagun garbiak, Kolon pasealekua 7.
01:00. Gure borda, Usandizaga kalea 20.
10:30. Itxas Gain, Zabaleta kalea 26.
17:00.
▶ La Gaviota, Martin Berasategi kafetegia.
▶ Club Ciclista Donostiarra, Karkizano kalea 3
▶ Erreka Mari Kultur Elkartea, Kale Berria.
17:30. Jesuitas, Ategorrietako kalea 26.
18:30. El Cangrejo, Errenteria kalea 14.

18:45. Zurriola Ikastolako Helduen Danborrada, Zurriola Ikastolan.
20:45. Kursaal Elkartea, Zurriola hiribidea.
22:00. Kondarrak, Ramon y Cajal kalea 4.

INTXAURRONDO

00:00.
▶ Irurak, Irurak plaza
▶ Intxaurra, Valentzia plaza
12:00. Artzak Ortzok, Intxaurrondo kalea 60.
15:30. Zulo-Zahar, Intxaurrondo kalea 52.
17:00. Boskozaleak, Luistarren kalea.
17:30. Mons, Zarategi pasealekua 59.
18:00. Haizalde, Zarategi pasealekua 65-67.

PARTE ZAHARRA

23:45. Kainoieta, Abuztuaren 31 kalea 30.

23:45. Gaztelubide, Konstituzio plaza.
01:00.
▶ Araba Etxea, Arraindegia kalea 8.
▶ Arrano Beltza, Ikatz kalea 10
01:30. Herria Elkartea, Ikatz kalea.
02:45. Gastronomika, Trinitate plaza.
03:00. Euskal Bilera, Mari kalea 5.
03:00. Xarmanta, Euskal Herria kalea 7.
07:00. Kresala Nagusi, Euskal Herria 9.
16:00. Aizepe, Koruko Ama kalea 8.
16:15. Kresala Gaztea, Euskal Herria 9.
16:30. Zubi Gain, Kanpandegia.
18:00. Esperanza, San Bizente kalea
19:00. Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartea, San Joan kalea 27
20:30. Ollagorri, Gazteluko igoera 5.
21:00. Union Artesana, Zuloaga plaza eta Soraluze.

LAND-ROVER

FIROLAN
4x4

Gipuzkoarako Land Rover kontzesionarioa

Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan) Tel: 943 33 10 06
www.eurolan4x4.com

Euskal Herriak du Hitza eta Erabakia

EAJ PNV
Donostiako Eusko Alderdi Jeltzalea

EUSKADIK BEHAR ZAITU

ANTIGUA ▶ SAN SEBASTIAN JAIAK

EKITALDI
NAGUSIAK ▶

GAUR

19:00. Iraunkorrek txaranga.
19:30. Buruhandiak, lideiak
tailerraren zirko animaliak eta
Iraunkorrek txaranga,
kaleetan zehar.
00:00. Sansustene
danborradak bandera igoko
du Benta Berri plazan.
00:30. Zubimusu
danborrada. DJ festa
txosnetan.
03:00. Herri danborrada
Matia kaletik aterako da,
Iraunkorrek txarangarekin.

LARUNBATA, HILAK 22

11:00. Iruñeko zantantzarrak
11:00. Haur jolasak Gaskonia
plazan.
12:30. Herri-kirolak Gaskonia
plazan. Auzotarrek osaturiko
bi talde ariko dira.
13:00. Iraunkorrek txaranga.
13:30. Lore eskaintza Satza
auzotar zenari, Benta Berrin.
14:00. Koadrilen bazkaria.
19:00. Koadrilen arteko
jokoak txosna gunean.
21:00. Iraunkorrek txaranga.
22:30. Gatillazo, Acid Gazz
eta Sutura taldeen kontzertua
frontoian.

Koadrilen Egunak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu aurten

Gaur hasita, igandea arte iraungo dute Antiguako San Sebastian jaiak



Koadrilen Egunak 25 urte beteko ditu aurten; argazkian, Gautxirri koadrilakoak. IRUTXULO

RAUL PEREZ

Sasoi batean Antiguako koadrilak sabakabanatu samar ibili ohi ziren. Nor bere laguntaldearekin zebilen auzoko tabernetan, baina ez zuen harremanik gainerako lagun koadrilekin. Hori ikusita, duela 25 urteko San Sebastian festetan Koadrilen Eguna antolatzeari ekin zioten. Jai batzordeko kide Txikik azaldu digunez, ekinzaz helburua bete du: «Auzotar askok elkar ezagutu dute, eta bikote bat edo beste ere osatu da Koadrilen Egunean».

Jatorrak, Baitasuri, Beti Saltsan, Gautxirri... 20 bat taldek hartu ohi dute parte Koadrilen Egunean. Batzuk aspaldi sortuak, beste batzuk azken urteotan osatutakoak. Koadrilek kolore jakin bateko blusa janzten dute, eta blusaren atzealdean koadrilaren izena edo beste leloren bat jarri.

Aurten koadrilak hilaren

ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN ADITUA
SUPER SONIDO

URBIETA, 40

DONOSTIA

www.supersonido.com

Danena
Taberna
PINTXO ETA BOKATAK



Embeltran, 8 • ☎ 943 42 51 97 • DONOSTIA



JATETXEA

Juanito kojua

ESPEZIALITATEA: ARRAINAK ETA ITSASKIAK

Kaia kalea, 14 • ☎ 943 42 01 80 • Faxa: 943 42 18 71
20003 DONOSTIA • www.juanitokojua.com



Arrandegi kalea, 4 eta 12 - DONOSTIA

SARIKETA

BAR

Fermin Kalbeton 23
(Parte Zaharra)
DONOSTIA

PSE-EE
PSOE



Donostia, eder hori!
Zorionak

22an, larunbatean, elkartuko dira. Eguerdian poteoa egingo dute. Ondoren, Benta Berriko kiroldegian bazkaria izango dute. Koadrilek ez ezik, nahi duen orok parte har dezake bazkarian; txartelak Antiguotarrak elkartean salgai daude, 14 eurotan. Arratsaldean, joko bitxi batzuk izango dira: ahalik eta katxi gehien edan eta garagardo kupelak leku batetik bestera azkarren eramaten dituen koadrilak irabaziko du. Eguna ezin hobeto bukatzeko, jai batzordeak Gatillazo taldearen kontzertua antolatu du. La Pollako abeslari ohi Evaristoren taldea jo ta su ariko da.

BERRIKUNTZAK

Aurtengo festetan, lehen aldiz zaldi lasterketa herrikoia egingo dute Ondarretan, igandean

OMENALDIK

Baso Etxea eta Ibaeta danborradek eta Patxatxa taldeak omenaldia jasoko dute aurtengo jaietan

Zaldi lasterketak

Aurtengo festetan berrikuntzarik ere ez da faltako: lehen aldiz zaldi lasterketa herrikoia egingo dute Ondarretako hondartzan, igandean. 12 bat zaldi lehiatuko dira, 500 metro inguruko zirkuitu biribilean.

Hiru lasterketa izango dira, eta bakoitzean lau zaldik parte hartuko dute. Proba bakoitzeko zaldi onenak finalerako sailkatuko dira. Ondarretan zaldi lasterka entsutetsuen saltsa ez da faltako, apustuak egin ahalko baitira.

Omenaldiak

Baso Etxea eta Ibaeta danborradek eta Patxatxa taldeak omenaldia jasoko dute aurtengo jaietan. Antiguako danborradek Baso Etxea eta Ibaeta danborradei oroigarri bana emango diete igandean, urtarrilaren 23an. Baso Etxea danborradak 25 urte beteko ditu aurtengoa, eta Ibaetakoak 50. Bestalde, Antiguoko Kirol Elkarteak Ohorezko Artillereraren izendatuko du Patxatxa taldea. Talde horrek San Sebastian bezperetan bazkaria antolatu ohi du urtero-urtero, auzotik kanpora bizi diren antiguatarrak elkartzeko, eta lan hori saritu nahi izan dute.

ERDIALDEA ▶

Vinuesako aparkalekuan izena emateko epea zabalik

Udalak laster ekingo die Vinuesa plazako lur azpiko aparkalekua zabalteko lanei. Aparkalekua Kontxako pasealekuaren azpian dago, eta 141 toki izango ditu. Toki horietako bat eskuratzeko, izena eman behar da urtarrilaren 31 baino lehen, Urdaneta kaleko Mugikortasun sailean, gida eta zirkulazio baimen originalak eta fotokopiak aurkeztuz. Donostiar guztiak eman dezakete izena; hala ere, tokiak banatzerako orduan, Erdialdeko bizilagunek eta merkatariek lehentasuna izango dute.



Kontxako pasealekuaren azpian 141 aparkaleku gehiago izango dira laster. IRUTHULO

AÑORGA ▶

Imanol Marañontzat, sari bikaina

Imanol Marañon auzotar gazteak ETB 2 kateko *Date el bote* saio sari nagusia irabazi du: 26.110 euro. Añorgatarrak dagoeneko erabaki du nola banatuko duen saria. Batetik, gurasoei zati bat emango die, bidaia bat egin dezaten. Bestetik, koadrilarekin afaria egiteko asmoa du. Saria gida baimena ateratzeko ere baliatu nahi du. Marañonek amarekin ikusi ohi du saioa, «eta amak berak zirikatatu ninduen saioan parte har nezan», dio.

ALTZA ▶

Oletako obrak, hil bukaeran

Datorren astean hasiko dira Oletako bi errepideak zabalteko lanak. Aparkalekuak ere egingo dituzte, batik bat beheko errepidean, hainbat baratza kenduta.

LARRAMENDI, S.A.
GASOLINDEGIA

AVIA DENDA
OLIO ALDAKETA 23€

Natarroa hiribidea, 5
20013 DONOSTIA

CASA TIBURCIO
JATETXEA

Fermin Kalbeton, 40
Tel.: 943 42 31 30
943 42 06 80
20003 DONOSTIA

GANBARA
Taberna-Erretegia

San Jeronimo, 21 Tf.: 943 42 25 75
DONOSTIA

Aralar

Zorionak Donostiarroi
Ongi etorri HITZA • Gora San Sebastianak

SAHARAKO MARATOIA ▶

Basamortura, korrika egitera

Hilabete barru Saharako Maratoia jokatu da; Belen Eskisabelek, 49 urteko Gros auzoko bizilagunak, aurreneko aldiz parte hartuko du lasterketan



Belen Eskisabel korrikalaria, Zurriolako hondartzan. IRUTXULO

RAUL PEREZ

Aspalditik du Belen Eskisabelek korrika egitea afizio. Azken urteotan gutxitan egin du kale Behobia-Donostian eta Donostiako Maratoian, eta otsail bukaeran Saharako Maratoian izango da. «Azaro bukaeran, Donostiako Maratoian, ondo ikusi nuen neure burua, eta, erronkak atsegin ditudanez, Saharako Maratoian izena eman nuen», dio Eskisabelek. Proba Tindufko errefuxiatu gunean jokatu da, eta hiru helburu nagusi ditu: dirua biltzea bertako haurrentzat; lasterkari saharaiarrek egon badaudela aldarrikatzea eta errefuxiatuek kanpamentuetan pairatzen dituzten gabezia guztiak lau haizetara zabaltzea.

Senarrarekin eta beste zazpi bat lagunekin joango da hara. Korrika Eskisabelek egingo du, eta bidaiadak animatzera joango dira. Proba otsailaren 28an izango da. El Aaiun izene-

ko herrixkan hasi eta Smaran bukatuko da. Maratoi guztietan bezala, lasterkariek 42 kilometro eta 195 metroko egin beharko dituzte. Ibilbide gehiena hondar gainean egin beharko dute, errefuxiatuen kanpamentuak basamortu gordinen baitaude. Eskisabelek lehen zatiko hareari eta Sirocco haizeari die beldur gehien: «Harea buztinaren antzekoa da, eta hauts asko botatzen omen du. Oinak ondo babesteko aholkatu digute; hautsa zapatiletan sartuz gero, gorriak ikusiko ditugu. Bestalde, Sirocco haizeak gogor jotzen duenean, hareak ia-ia irentsi egiten zaitu».

Saharaiarrek inunkituta

Kirolak bakarrik ez du eraman-go Eskisabel Saharara. Duela hiru urte egon zen errefuxiatu gunean oportetan. «Familia osoa eta lagun batzuk izan ginen han. Hain zuzen, familia batek hartu gintuen Ausert herrixkan. Oso aberasgarria izan zen, batez ere gure seme-alabentzat. Ni hunkituta bueltatu nintzen, errefuxiatuen bizimodu penagarria ikusita». Donostiara itzuli zenean, Eskisabel Saharako Lagunen Elkarte-ko kide egin zen, eta udan haur saharaiar bat hartu zuen etxean.

euskararen
donostia

www.euskaraz.net



Etorkizuneko elkartasunaren alde

Karlos I.a, behea

Tel.: 943 57 03 99

Faxa: 943 46 33 66

DONOSTIA

www.ccoo-euskadi.net



Zorionak donostiar guztiei

XABIER PRIETO ▶ REALEKO JOKALARIA

«Uste baino gutxiagotan ari naiz jokatzeko denboraldi honetan»

Realeko jokalaria donostiarrak dio «zerikusirik» izan dutela lesioak, gaixotasunak eta Karpinen sasoiak, eta «errespetatzen» duela entrenatzailearen erabakia



ARGAZKI PRESS

ENEKO KARRERA

Ilusioa pizten duen futbolaria da Xabier Prieto donostiarrak, artista baita jokaldi batzuetan. 21 urte ditu eta denboraldi honetan hamaikakoa postua irabazten hasiko zela pentsatzen zuten askok, baina ez da hala izan; lesio batek, gaixotasunak eta Valeri Karpinen sasoi onak zerikusirik izan dute horretan. **Lehenengo igandean, Bartzelonan, titular jokatu zenuen, aspaldiko partez, baina partida ezin bukatu...**

Hala da, bi txartel hori atera zizkidalako epaileak. Huts egin nuen jokaldi haietan, batez ere bigarrenengoan, eta partida bukatu ondoren barkamena eskatu nien taldekideei.

Gainera, taldeak azkeneko minutuetan galdu egin zuen... Horregatik ere minduta nago.

Hala ere, taldeak itxura polita eskaini zuen Bartzelona handiaren kontra, ezta?

Bai. Etxeko bederatzi jokalarik hasieratik jokatu genuen, Bartzelonari aurre egin genion, nik uste polita dela hori, eta zerbait esan nahi du.

Zu zeu uste baino gutxiagotan

jokatzeko ari al zare denboraldi honetan?

Arrazoi bategatik edo besteagatik, egia da uste baino gutxiagotan jokatzeko ari naizela. Lesioa izan dut, gaixorik ere egon nintzen... Gehiagotan jokatzeko gustatuko litzaidake.

Valeri Karpinek jokatzeko du zure postuan, eta hura ondo ari da.

Dударик ez ondo ari dela. 35 urte ditu, asko zaintzen da, maila ona dauka eta hura ari da titular jokatzeko. Nik uste Lehen Mailan adin horretako jokalarik gutxi egongo direla Karpin bezain ondo. Dena dela, neu sasoi aldetik ondo egon izan naizenean, jokatu izan dut, minutu batzuetan bada ere. Entrenatzaileari galdetu behar zaio ea zergatik ez duan gehiagotan jokatzeko. Nik errespetatzen dut hark erabakitzen duena.

Zertan hobetu behar duzu gehiagotan jokatzeko, jokalarik hobea izateko?


Ez dut gauza zehatz batean hobetu behar. Gaztea naiz eta joango naiz denetik ikasten. Entrenamenduak daude horretarako.

Zein da Realaren helburua denboraldi honetan?

Ez naiz helburu jarri zalea, baina nik uste denok ere nahikoa garbi dugula salbazioa lortzea dela helburua. Gero, gauzak hobeto joanez gero, UEFA ere hor dago, baina hobe izango da oraingoz behintzat, UEFA ez aipatzea.

Denboraldi honetakoa, transizioko ekipoa dela uste al duzu?

Ez dakit. Garbi dagoena da gazteen aldeko apustu garbia egiten ari dela Realak, gazte asko jokatzeko ari garela eta askotan, eta hori ona da. Gainera, egundoko giro polita daukagu taldean.



*Donostiar guztiei jai zoriontsuak opa dizkizuegu.
Ondo izan!*

ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK

TEUSA

Tel. 943 401 340 www.teusa.com

eusko
alkartasuna

Ongi etorri IRUTXULOKO HITZA

BERTSOLARITZA ▶

Kursaalen Bertso Egunean bederatzi gizonezko

Larunbatean egingo da Bertso Eguna, Donostian. Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Xebaxtian Lizaso, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze, Iñaki Gurrutxaga, Jesus Mari Irazu eta Jon Martin bertsolariek hartuko dute parte. Sarrerak lortzeko, 943 217798ra deitu behar da.

▶ **Eguna.** Larunbata. ▶ **Tokia.** Kursaal. ▶ **Ordua.** 18:00.



Xebaxtian Lizaso. IRUTXULO

HITZALDIA ▶

Unzurrunzaga, haur etorkinen euskalduntzeaz

SOS Arrazakeria elkarteak Agustin Unzurrunzagak *Haur etorkinen euskalduntzea* hitzaldia eskainiko du datorren urtarrilaren 25ean, asteartean. Bagera elkarteak antolatutako Astearte Kulturalak ekimenaren barnean egingo da hitzaldia.

▶ **Eguna.** Asteartea, hilak 25. ▶ **Tokia.** Koldo Mitxelena. ▶ **Ordua.** 20:00.



Unzurrunzaga. IRUTXULO

TELEBISTA ▶

Danborrada ETB1en gaur eta bihar

Donostiako danborradari arre-ta eskainiko dio ETB1ek. Gaur, 23:00etatik aurrera, iazko une berezietan gogoan hartzeaz gain, zuzenean emango du danborrada gaua. Bihar, haur danborrada, 11:45etik. Gauean, banderaren jaitsiera Teledonostik eta Localiak ere emango dute danborrada.

▶ **Katea.** ETB1. ▶ **Gaur.** 23:00. ▶ **Bihar.** 11:45, 23:00.

AGENDA ▶

GAUR (ASTEAZKENA, 19)

Musika. Borja Campion eta Kolektivo Nomeaklimato. Antigua, Kandela aretoa, 00:00ak.

Haur antzerkia. *Eugenia ardiaren bidaiak* antzezlana, Agerre Teatroak. Antigan, Lugaritz kultur etxean, 18:00etan.

Zinema. *Los contrabandistas de Moonflet* filma. Antzoki Zaharrea, 20:15ean. Nosferatu: *Fritz Lang Amerikan* zikloa.

BIHAR (OSTEGUNA, 20)

Musika. Alejandro Mingot, Iñaki Salvador, Josu Izagirre eta Hasier Oleaga. Antiguako Branka tabernan, 20:00etan.

OSTIRALA, 21

Musika. Amazing Grace + talde gonbidatua. Urgull mendiko Guardetxean, 21:30ean.

Musika. Aфонia eta Valium Generation. Antiguako frontoian, 22:00etan.

Musika. Manu Drum (dj). Antiguako Branka tabernan, 23:00etan.

Musika. Kinkitraxx. Antiguako Kandela aretoa, 00:00etan.

Antzerkia. *¡Ay Manolo!*, gaztelaniaz. La Tentacion eta La Peineta taldeak. Antiguako Lugaritz kultur etxean, 20:30ean.

Antzerkia. *Katxi-Batxe de Cucina!* kale antzezlana. T'Ombli-go taldeak. Antiguako Julio Caro Baroja plazan, 17:00etan.

AITZPEA GOENAGA ▶ ANTZEZLEA ETA ANTZERKIGILEA

«Jendeak une atsegin bat pasa dezan idatzi dut antzezlana»

Iñaki Lazkano ▶ Igandean, urtarrilak 23, *Euskararen 7 bekatu nagusiak* antzezlana estreinatuko du Pok taldeak Antzoki Zaharrea, 20:00etan. Niko Lizaga, Mikel Laskurain eta Lierni Fresnedo dira obraren antzezeleak. Aitzpea Goenagak idatzitako obrak Korrika-AEK beka bereganatu zuen.

Zer kontatzen du Euskararen 7 bekatu nagusiak antzezlana?

Euskararen inguruan euskaldunok sortzen ditugun bekatuez hitz egin nahi izan dut, umorea erabiliz. Zazpi bekatu nagusiak aitzaki hartuta, euskararen esparruan gertatzen diren zazpi egoera berezi irudikatatu ditut. Horrekin jolastu nahi izan dut. Antzezlana, neuri handi batean, jolasa baita.

Umoreak, beraz, berebiziko garrantzia du antzezlanean. Umore tonua da nagusi antzezlanean honetan. Barre egiteko eta tarte entretenigarria igarotzeko antzezlana aproposa dela uste dut. Jendeak antzerkian une atsegin bat pasatu dezan idatzi dut antzezlana.

Igandean taularatuko da le-



IRUTXULO

hen aldiz Euskararen 7 bekatu nagusiak antzezlana. Urduri al zaude?

Edi Nauda eta Olatz Beobide zuzendariekin harremanetan izan naiz azken aldian. Antzezlaren inguruan aritu gara hizketan, eta aldaketaxo batzuk ere egin ditugu. Egia esan, lasai samar nengoan duela gutxi arte. Estreinaldiaren eguna hurbildu ahala, ordea, urduritzen hasia naiz.

Nola bizi du antzezele batek

bere obraren antzezepena antzekiko butakatxotik?

Oso gustura. Ez dit penarik ematen oholta gainean ez egoteak, benetan.

Danborradan parte hartzeko asmorik al duzu?

Gaur seme-alabak danborrada batean irtengo dira. Nik, tamalez, ezin dut. Oso lanpetua naibil eta. Bihar jai dudanez gero, danborrak entzun, ikusi eta San Sebastian eguna umekin pasatzeko asmoa dut. ◀

LARUNBATA, 22

Musika. Doctor Deseo. Antzoki Zaharrea, 20:00etan.

Musika. Jauko Barik. Egiako Bukowski tabernan, 20:30ean.

Musika. Villano Vudu eta Electric Dolls. Urgull mendiko Guardetxean, 21:30ean.

Musika. Gatillazo, Acid Jazz eta Sutura. Antiguako frontoian, 22:30ean.

Musika. Walrus is Black (dj). Antiguako Branka tabernan, 23:00etan.

Musika. Standstill. Antiguako Kandela aretoa, 23:00etan.

Antzerkia. *¡Ay Manolo!*, La Tentacion eta La Peineta. Antiguako Lugaritz, 20:30ean.

Haur zinema. *Azti ikaslea*. Antigua, Lugaritz, 17:00etan.

Politika. Gregorio Ordoñezen omenezko ekitaldia. Kursaal-ean, 12:00etan. Aznar eta Mayor Oreja izango dira bertan.

IGANDEA, 23

Musika. Mal de Ojo. Antiguako Kandela aretoa, 20:00etan.

Antzerkia. *Euskararen 7 bekatu nagusiak*. Pok taldea. Antzoki Zaharrea, 20:00etan.

Antzerkia. *¡Ay Manolo!*, gaztelaniaz. La Tentacion eta La Peineta taldeak. Antiguako Lugaritz kultur etxean, 20:30ean.

Antzerkia. *El pisito* kale antzezlana, gaztelaniaz. Trapu Zaharra. Antigan, Matia kalean eta Gaskonia plazan, 13:00etan.

Autonomoentzako eta enbrosagintzarako **mintegiak**

Segurtasuna Interneten, konpondu gabeko arazoa

Hirugarren mintegi honetan, eraso, arazo-hauste edo ardara ezaren aurrean zure negozioa nola egokitu eta babestea dizkizun erakutsiko dizuguz: birusak, segurtasun kopiak, zabor posta, Datuak Babesteko legea, etab.

Informazioa eta zure enbroska: **902 252 595**
www.mintemondigital.com
larrosa@mintemondigital.com

Donostiako urtarrilak 31
HERNANI
Hernani Bñi (EPC)
Karneto Liburu Eskola
Orduak: 18:00-20:00

Herrikoak: **902 252 595**
www.mintemondigital.com
larrosa@mintemondigital.com

Partekatu: **902 252 595**
www.mintemondigital.com
larrosa@mintemondigital.com

Partekatu: **902 252 595**
www.mintemondigital.com
larrosa@mintemondigital.com

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

HONDARRIBIA, 28
20005 Donostia

www.funerariavascongada.com
Belegoak: **DONOSTIA-LASARTE - ANDOAIN**
ERRETERIA - HERNANI - PASAIA - TOLOSA

ERREKALDE, 57
20018 Donostia

ARRETA IRAUNKORRA 24 ORDU
902 402 900

EFEMERIDEA ▶

100

urte kai berriak. 1905ean, San Sebastian egunez, kai berria inauguratu zuten. Matxinbarrena ingeniariak egin zuen proiektua, eta Offmeller ingeniariak zuzendu zituen lanak. Inaugurazio egunean Jarana auzoa eta kai inguruak jendez lepo zeuden. Santa Maria elizako apaiz Ignacio Mujikak bedeinkatu zituen obrak. *Maria Gertrudis* baporea izan zen kaian sartu zuen lehen ontzia.



Kaia, duela mende bat.

TELEFONO ZENBAKIAK ▶

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Gurutze Gorria	943 222222
DYA	943 464622
Itsasoko Gurutze Gorria	900 202002
Farmaziak	943 429117
Suhiltzaileak	080

OSASUNA

Larrialdiak	943 461111
Donostiako ospitaleak	
▶ Amara	943 007400
▶ Arantzazu	943 007000
▶ Gipuzkoa	943 006000
▶ Psikiatria	943 007213
▶ Larrialdi orokorrak	943 007053
Poliklinika	943 309400

POLIZIA-TRAFIKOA

Ertzaintza	943 288888
Udalzaingoa	092
Udal garabia	943 320658

MATXURAK

Iberdrola	901 202020
Donosti Gas	943 450200
Naturgas	900 400523
Ur matxurak	943 481050
Euskaltel	045
Telefónica	1002

GUARDIAKO FARMAZIAK ▶ GAUR

EGUNEZ (09:00-22:00)

- ▶ **M. T. Perez Azanza.** 943 42 75 66. Urbieta 24 (Erdialdea).
- ▶ **J. A. Marco.** 943 46 93 54. Ternuako Arrantzaleak 7 (Amara Berri).
- ▶ **J. Cabezudo.** 943 27 54 48. San Frantzisko 54 (Gros).
- ▶ **M. A. Gastelurrutia.** 943 35 21 67. Larratxo pasealekua 98 (Altza).

GAUEZ (22:00-09:00)

- ▶ **E. Imaz.** 943 42 17 12. Bergara 3 (Erdialdea).

ZINEMA KARTELDEGIA ▶

TRUEBA (Secundino Esnaola, 2. 943 271 391. Ikuslearen eguna: asteartea)

- ▶ Whisky 17:30 19:45 22:15
- ▶ Luna de avellaneda 17:00 20:00

BRETXA (Arrandegia eraikitza. 943 421 371. Ikuslearen eguna: asteartea)

- ▶ Alejandro Magno 16:00 18:00 19:10 21:30 22:30
- ▶ Las novias de mi novio 16:00 18:15 20:30 22:45
- ▶ Obsesión 16:00 18:15 20:30 22:45
- ▶ Llamada perdida 16:00 18:15 20:30 22:45
- ▶ El fantasma de la opera 17:00
- ▶ Ong-Bak 19:45 22:00
- ▶ Los increíbles 16:00 18:15
- ▶ Taxi: derrape total 20:30 22:45
- ▶ Lemony Snicket 16:00 18:00
- ▶ La busqueda 20:00 22:30

WARNER (Ilunbe gunea. 943 308 170. Ikuslearen eguna: astelehena)

- ▶ La busqueda 18:00 21:30 00:15
- ▶ Obsesión 17:15 19:45 22:15 00:40
- ▶ Los increíbles 17:00 19:15
- ▶ El mensajero del miedo 21:45 00:30
- ▶ El aviador 17:15 18:30 20:30 22:00 00:00
- ▶ Alejandro Magno 17:00 18:15 21:00 21:45
- ▶ El asombroso mundo de... 00:50
- ▶ Lemony Snicket 17:30
- ▶ Ong-Bak 20:00 22:30 00:50

- ▶ Taxi: derrape total 17:30 20:00 22:30 00:40
- ▶ Ocean's twelve 17:00 19:30 22:00 00:40

PRINCIPE (San Joan, 10. 943 421 247. Ikuslearen eguna: asteazkena)

- ▶ Contra la pared 17:00 19:30 22:15
- ▶ Solo un beso 17:30 19:45 22:30
- ▶ El aviador 16:45 18:45 20:30 22:30
- ▶ Caminar sobre las aguas 17:15 19:45 22:15
- ▶ Conversaciones con mama 17:30 20:00 22:30
- ▶ Temporada de patos 17:30 20:00 22:30
- ▶ La importancia de llamarse Ernesto 17:30 20:00 22:30
- ▶ Los chicos del coro 17:15 19:30 22:15
- ▶ Confidencias muy íntimas 17:00 19:30 22:15
- ▶ 2046 17:00 19:45 22:00

LAUREN (Urbil gunea - Usurbil. 943 376 557. Ikuslearen eguna: astelehena)

- ▶ Beatiful boxer 17:00 19:40 22:15 00:50
- ▶ La importancia de llamarse Ernesto 16:30 18:30 20:30 22:30 00:45
- ▶ Bridget Jones, sobrevivire 20:25 22:35 00:50
- ▶ Lemony Snicket 16:05 18:15
- ▶ La busqueda 16:20 19:20 22:05 00:35
- ▶ Alejandro Magno 16:15 20:15 23:55
- ▶ Ocean's twelve 16:15 19:15 22:00 00:40
- ▶ Taxi: derrape total 16:00 18:10 20:30 22:45 00:55
- ▶ El aviador 16:00 20:00 23:45

ZINEMA ESTREINALDIA ▶ 'CEGADOS POR EL DESEO'



DRAMA ▶ Antzezlan arrakastatsu baten zinema egokitzapen iradokitzailea dakar Mike Nichols interesgarriak *Cegados por el deseo*-n. Annak eta Larryk elkar maite dute. Baina Dan erakargarriarekin oheratzen da Anna. Maitasunaz, sexuaz eta bakardadeaz egiten du

gogoeta *El graduado* apartaren egileak. Julia Roberts, Clive Owen, Natalie Portman eta Jude Law aktoreek lan aparta egiten dute bertan. Drama erromantiko gazi-goza da. .
▶ **Filma.** *Cegados por el deseo.* ▶ **Noiztik.** Urtarrilaren 21etik. ▶ **Non.** Warner eta Brexa.

UDAL EHORZKETA ETXEA 1926tik

- Erabateko zerbitzua
- Errauste labea, beilatokia, eskelak, gorpua eramatea, hilerrak, panteoiak eta horma hilobiak
- Aseguru etxe guztiekin egiten dugu lan
- Donostian eta probintzian aritzen gara
- Etxetara eta erietxetara joaten gara

24 ORDUZ ZUEN ZERBITZURA

943 42 21 29

Mandasko Dukea, 14



Polloe

Hileta-Zerbitzua
Servicios Funerarios
Donostia San Sebastián



Donostiako Udalak
Ayuntamiento de San Sebastián

Mende bat Urumea gainean

HISTORIA ▶ 1905eko San Sebastian egunean inauguratu zuten

Maria Cristina zubia; Julio Zapatak eta Eugenio Riberak egin zuten proiektua

ORREAGA ARANBURU

Maria Cristina zubiak ehun urte beteko ditu San Sebastian egunean, 1905eko urtarrilaren 20an inauguratu baitzuten. Zubia eraiki aurretik, egurrezko pasabide batek lotzen zituen Erdialdea eta Norteko Geltokia, baina pasabidea txiki geratu zen, eta Udalak harrizko zubia eraikitzea erabaki zuen. Horretarako, Donostiako Aurrezki Kutxak 700.000 pezetako mailategua egin zion Udalari, intere-



Maria Cristina zubia, duela mende bat.



Oinezkoak zubian. IRUTXULO

sik gabe eta ehun urtetan itzultzekoa.

Julio Zapata arkitektoak eta Eugenio Ribera ingeniariak aurkeztutako proiektua aukeratu zuen epaimahaia. Zapatak eta Riberak Parisko Garaiaren Arku bezalako bi arku egitea aurreikusi zuten. Epaimahaia, ordea, arkuak kentzea eta lau dorre jartzea erabaki zuen. Zubiaren dorre ezagunak, beraz, ez zeuden jatorrizko egitasmoan.

Inaugurazio eguna

Inaugurazio egunean, hiritar askok etxeko balkoiak apaindu zituzten. Inaugurazio ekitaldira ere jende asko bildu zen. Artzain Oneko apaizek zubia bedeinkatu zuten eta Jose Elosegi alkateak hitzaldia eskaini zuen.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Garazi Betelu Koch. Etxeko sorgiboak urtebete laster. Muxu bat familiaren partez.



ZORIONAK
 Mikel Iriarte. Antiguako lehendakaria ez dadila ito auzoko festetan.



ZORIONAK
 Maialen. Zorionak zure lehen urtebetetzean. Gurasoen partetik, muxu handi bat.



URTE ASKOAN
 Josetxo Otegi. Zorionak Kandemoill, ea laster urteak elkarrekin ospatzen dugun.



URTE ASKOAN
 Luis Rodriguez. Irati bazkide sortzaile izendatuko dugu, baina zu ez. Gora Txipiona!



ZORIONAK
 Ekain Camarero. Aurtentxe. Etxeko txikiak urtebete laster.



ZORIONAK
 Pablo Fernandez. 29! Ea aurten gai zaren Jaizkibelera abiadura horretan igotzeko.




MARCOS
 okindegia

27. Industrialdea - ASTIGARRAGA
 Tel.: 943 45 09 66 - Faxa: 943 11 67 28



Decoraciones GROS
25. URTEURRENA

- Parketak eta tarimak
- Zoru mota guztiak
- Hormen estaldurak

PRODUKTU NATURALAK
 (PINTURAK, ARGIZARRIAK, OLOAK, ETAB.)

San Frantzisko, 19 behe - 20002 DONOSTIA
 Tel.-Faxa: 943 27 85 05



Donostian euskara ongi ikasteko

Ilazkin Urrutira joan gabe

ILAZKI EUSKALTEGIA

www.ilazki.com
 943 42 49 10

LEITZA ▶

Txerria etxean hiltzen

Ohiturari eusten
diote oraindik ▶ 7



Bertsoa eskoletan sustatzeko akordioa sinatu du Tolosako Udalak elkartearekin

LANA ▶ Gipuzkoako Bertsozale Elkartea arduratuko da 'Ahozkotasuna eta bertsolaritza' egitasmoaz ▶ 2



Onintza Lasa, Jokin Bildarratz eta Felix Irazustabarrena atzoko sinadura ekitaldian udaletxean. LEIRE MONTES

ALEGIA ▶

Intxurre, pozik lehen itzuliko emaitzekin

Lehen taldeak mailaz
igo nahi du ▶ 5

ALKIZA ▶

Laster hasiko dira etxe berriak egiten Peru azpiko sailetan

Hamasei hilabetetan altxatuko ditu
Trati eraikuntza enpresak ▶ 4

IÑIGO TERRADILLOS



Hasi dira eskola berria eraikitzeko lanak herrian

BERROBI ▶ Apirilerako amaitu nahi dute;
150 ikaslerentzako lekua izango du eskolak;
15 milioi euroko aurrekontua du lanak ▶ 6

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun
egoitzan
lor dezakezu

Modelo eta kolore
ezberdinak
neska nahiz mutilentzat

Zatoz zurearen bila!
TOLOSako eta LEITZako
egoitzetara



BERTSOLARITZA ▶

Martxan da 'Ahozkotasuna eta bertsolaritza' egitasmoa

Gipuzkoako Bertsozale Elkartek eta Tolosako Udalak lankidetzaz hitzarmena izenpetu dute; Hirukiden, Laskorainen eta Samaniegon eramango dute aurrera

LEIRE MONTES

Ahozkotasuna eta bertsolaritza egitasmoa martxan da. Atzo izenpetu zuten Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartek, eta Tolosako Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeetan —Hirukiden, Samaniegon eta Laskorainen— eramango dute aurrera. Ahozko komunikazioa lantzea du helburu proiektuak, horretarako bertsolaritzako hainbat baliabide erabiliz.

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakari Felix Irazustabarrenak sinatu zuten atzo hitzarmena, udaletxe-ko batzar aretoan. Alkatearen esanetan, «hizkuntzaren, euskararen kalitatea da ardatza. Euskararen erabileraren inguruan dugun kezka erantzun nahi dio egitasmo honek, eta hezkuntza kalitatea zaintzea ere du xede». Bertsolaritzaren transmisioaz mintzatu zen Irazustabarrena: «Bertsolaritzaren transmisioak kezkatu egiten gaitu. Hizkuntzaren eta euskal kulturaren transmisioa delako, eta euskararen kalitatea bermatzen delako». Era berean, «eskualdeak duen bertsolaritzarako zaletasuna eta tradizioa berreskuratu, indartu eta bultzatu» nahi dutela azaldu zuten lehendakariak.

Onintza Lasa Udaleko zinegotzi eta Euskara batzordebu-



Eske-erakunde: Onintza Lasa, Jokin Bildarratz eta Felix Irazustabarrena, udaletxean, atzo. LEIRE MONTES

rua bat etorri zen baieztapen horrekin: «Bertsolaritza ez dago hain sustraitua gazteen artean. Gurea den tradizio hori mantendu nahi dugu. Bertsoek hizkuntza menderatzea eskantzen dute. Hizkuntza aberasteko eta kalitatea hobetzeko tresna ezin hobea izango da egitasmoa».

Kontent agertu ziren ordezkariak hitzarmena sinatzean. Hiru ikastetxeek ere berria pozik hartu zutela azaldu zuten Euskara Batzorde buruak: «Planteamendua etorri zenean oso begi onez ikusi genuen ekimena. Ikastetxeek oso interesgarritzat jo dute proiektua, eta ilusio handiz hartu dute». «Denon inplikazioa» beharrezkoa dela ere azpimarratu zuten Lasak: «Norbanakoak egin behar du lan euskararen alde».

Lehen Hezkuntzako ikasleak

Gipuzkoako Bertsozale Elkartaren gidaritzapean, Hirukideko, Samaniegoko eta Laskoraingo Lehen Hezkuntzako ikasleek hartuko dute parte *Ahozkotasuna eta bertsolaritza* egitasmoan —LHko 4. eta 5. mailako haurrei dago zuzendutako ekimena, baina 6. mailakoek parte hartzea ere ez dute baztertzen—. Bertsozale Elkarteko espezialista bat hamabostean

EGITASMOA ▶ HELBURUAK

Ahozkotasuna eta bertsolaritza egitasmoak ahozko komunikazio lantzea du xede, eta bertsolaritzaren hainbat baliabide erabiltzen ditu horretarako. Hauexek dira finkatutako helburuak:

- ▶ Bertsogintza bitarteko delarik, ikasleen euskararen erabilera maila eta kalitatea handitzea.
- ▶ Bertsolaritza zaletasuna piztea eta, bertsogintzari eskolako jardunean funtzionalitatea emanik, zaleen beharrak eta gogoak elikatzea.
- ▶ Bertsolaritzak eskaintzen

dituen aberastasun linguistikoak ezagutzea gain, erabiltzeko gaitasuna lortzea.

- ▶ Egoera komunikatiboaren arabera koherenteki jokatzeko jakitea.
- ▶ Hizkuntzaren erregistro informal ludikoez jabetzea.
- ▶ Hizkuntzak duen baliabide estetikoak jabetzea eta, hala izanik, erabiltzea.
- ▶ Memorizaziorako gaitasuna jorrotzea.
- ▶ Bertsolaritzaren bidez Euskal Herriko tradizioa eta oraina uztartzeko gai izatea.
- ▶ Bertso eskolen ingurua ezagutzea eta hurbiltzea.

behin joango da gela bakoitzean, eta bertan zentroko irakaslearekin batera emango ditu eskolak. Hainbat jarduerak egiteko asmoa ere badute; besteak beste, ikasturte amaiera aldera jaialdi bat egitea aurreikusten dute, eta bestelako ekintzak data zehatze batzuetan (Eguberriak, Santa Ageda...).

Proiektuari jarraipena egiteko batzorde bat sortuko dute: proiektuan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko arduradun banak, Udaleko eta Gipuz-

koako Bertsozale Elkarteko ordezkariak osatuko dute batzordea.

Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetan eskolako bertso jaialdi antolatzeke 13.200 euro emango dizkio Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari. Diru laguntzaren %50 urtarrean jasoko du elkartek, eta beste %50 maiatzean. Ikastetxeek planaren %33 ordainduko dute; gainontzekoa Udalak finantziatuko du.

POLITIKA ▶

Aralarrek «oso positibotzat» jo du tolosarren erantzuna

Torturaren aurkako kanpainaren baitan, sinadurak bildu zituen alderdiak Trianguloan

L. MONTES

Gabonetan hasi zuen Aralar alderdiak torturaren aurkako kanpaina. Joan den larunbatean, Tolosako Trianguloan, sinadurak biltzeko mahaiak jarri zituen. «Oso positibotzat» jo dute ekimenak jaso duen erantzuna.

Alderdiaren esanetan, «ehundik gora tolosarrek egin zuten bat alderdiak antolatutako kanpainarekin. Espainiako presidente Zapaterori zein Ibarretxe lehendakariari torturarekin bukatzeko exijitzen zuten postalak sinatu zituzten tolosar askok eta askok».

Acabemos con la impunidad izenburupean, bi postal horiek zera diote: «Zapaterori inkomunikazio ahalbidetzen duen legedia bertan behar uzteko eskatzen diogu; Prozedura Kriminalerako Legearen 520 eta 520 bis artikulua, hain zuzen ere. Ibarretxeri, bestalde, Ertzaintzak inor inkomunikatu ez dezala eskatzen zaio; gainera, Amnesty International erakundeak exijitu duen legez, ertzain etxeetan bideo kamerak jar ditzala ere eskatzen diegu EAJ-EA-IU hirukoiari».

ZESTA-PUNTA ▶

Euskal Herriko Elkarten Artekoan, ondo Beotibarkoak

L. MONTES

Euskal Herriko Elkarten Arteko Txapelketari ekin diote dagoeneko Beotibar Zesta-Punta Elkartekoek. Eta primeran hasi dute, gainera. Igandean kadeteek eta jubentilek jokatu zituzten partidak. Kadeteetan, Beotibarrek 30-27 irabazi zion Gernikako Euskal Jai Alai taldeari; jubentiletan, Beotibarrek 35-16 menderatu zuen Markina.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2004.eko abenduaren 20an erabakiaren bitartez, hasierako onpena eman zion, Jose Antonio Pagola Gokoetxeak sustatzen duen EL2 "San Blas" eremuko Plan Partzialari zenbait baldintzarekin.

Hirigintza Plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazten dituen Ekainaren 30ko 17/1994 Legearen 6. artikulua xedatutakoaren arabera, espeditentia jendaurrean jarriko da hamabost egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrria, Diario Vasco eta Hitza egunkarietan argitaratuko da, eta epea azken argitarapen dataren bihararaberririk ez du.

Epe horretan, espeditentia jendaurrean argieran egongo da. Udaletxeko Hirigintza Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-B). Alegazioak egotzea berako Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko dira, Udaleko Alkate-Lehendakari jaunari zuzendurik.

Tolosa, 2005.eko urtarrilaren 11an.
ALKATEA
Jokin Bildarratz Sorron.

ARETO FUTBOLA ▶

Gol aukerak non-nahi, baina bakar bat ere ez aurkarien sarera

Ilusio handiarekin irten zuten Hegoaldeko neskek kantzara, baina galdu egin zuten Teldeportibo taldearen aurka (0-2)

IRATXE ETXEBESTE

Etxean jokatu zuen larunbatean Hegoaldeko Aurkari gogorra izan zuten tolosarrek, izan ere, Kanarietako Klub Teldeportiboren aurka jokatu zuten. Gogoratu, kanariarrak lehenengo bost postuetan daudela sailkapen orokorrean. Bajei dagokienez, taldeko jokalariek guztiak izan ziren bertan eta ia denek izan zuten jokatzeko aukera.

Partida hasterako, ikuslegoa zain zegoen Berazubín. Kantzara, berriz, Nerea, Isa, Alde, Maider eta Zurri agertu ziren partida irabazi eta hiru puntuak lortzeko gogoz. Erritmo bizi eta azkarrean eman zioten jokalariek denek hasiera; Teldeportibo indartsu eta oso kontzentratuak jokatzen hasi ziren, kantzako goi parteko posizioan mantendu zelarik. Hegoalde ere indartsu eta lehen gola sartzeko gogoz irten zen kantzara, baloiak lapurtzeari ekin baitzuten etengabe.

Partidako lehen bost minutuetan etxekoen gol aukerekin gozatu ahal izan zuten zale-tuek. Kanariarrek, ordea, izugarri presionatzen zuten joko arriskutsuaz baliatu, eta tinko eusten zieten posizioari, modu horretan etorri zelarik lehen gola (0-1) Monicaren eskutik bosgarren minutuan. Kantxaren eskuin aldetik zihoala, ate alboan Hegoaldeko bi jokalariri iskin egin eta baloia ate barrura joan zen jokalaritola ezustean harrapatuta. Ondorengo minutuetan gol aukera sorta izan zuen Hegoaldeko eskuartearen, baina, behin eta berriro saiatu arren, ezinezkoa zirudien atezain kanariarri gola sartzea.

Hamargarren minututik aurrera joko apur bat aldatu zen. Kanariarrek beren taktikari eusten zioten bitartean, Hegoaldeko kantzara behegero jokatzeak apostua egin, eta atea gehiago zaindu zuten. Hala ere, aurkarietako baloiak lapurtu eta ihesaldiez baliatuz, hainbat gol aukera izan zituzten berriro ere tolosarrek. Kanariarrek, ordea, etengabe aldatzen zuten joko eta baloia modu azkar eta erosoan dantzatzeko zuten,



Hegoaldeko neskek ez zuten larunbatean irabazterik izan. HITZA

HEGOALDE ▶ 0

Hegoalde. Lurdes Zuriarrain, Itziar Aldezabal, Isa Barrio, Maider Lopez eta Nerea Salazar; Miriam Arana, Miriam Prados, Gema Zelaia, Naiara Mayo, Edurne Agirretxe eta Amaia Azpilikueta. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.

Teldeportibo. Sara Alvarez, Yaiza Bethencourt, Isabel Garcia, Delia Morales, Margarita, Monica, Laura Quintana, Maria Gonzalez eta Jorin. Ordezkarria: Vicente Jose Vega.

Golak. 1-0: Monica Jorrinek (5m.); 2-0: Delia Moralesek (29m.).

Arbitroak. Aitor Garcia Fernandez eta Igor Gereta Ramirez.

TELDEPORTIBO ▶ 2

gainera. Ongi prestatutako jokaldiak zituztela erakutsi zuten, baina ezer barkatzeko asmorik ez zutela agertu ere.

Bigarren zatia hasi bezain laster, Hegoalde modu lasaigoan jokatzen hasi zen kantzara apur bat goragoko posizioa mantenduz. Kanariarrek, berriz, lehenengo zatian garaturiko jokaldiekin jarraitu zuten, asko presionatuz eta bigarren golaren bila zihoazela eralutsiz. Bigarren gola sartzea (0-2) lortu zuen Delia kanariarrek partidako 29. minutuan. partidako minutu guztiak jokatu, eta taldeko joko bideratzeaz gain, gol erabakigarria sartu zuen jokalariek. Minutu bat geroago Isak txartel horia jaso zuen aurkarietako bati elastikotik tiratzeagatik.

Hurrengo minutuetan, kanariarrei baloiak lapurtu eta ihesaldiek eginez jokoari buelta emateko ilusioa piztu zuen Hegoaldeko zale-tuen artean, horren isla izan baitziren bata bestearen segidako hamaika gol aukera. Baina ez zirudien kanariarren atezainari gola sartzea lan erraza zenik, eta

saiatu bai, baina tolosarrek ez zuten lortu markagailua berdintzeko moduko tantorik. Gauzak horrela, 0-2ko emaitzarekin eman zitzaion amaiera partida gogor eta ikusgarriari.

Nahi, eta ezin

Partidan zehar garaturiko jokoaren harira zera azaldu zuen Maite Argotek: «Bagenekien kanariarrak oso jokalaririk arriskutsuak direla, eta horixe erakutsi dute gaurkoan». Bestalde, partida irekia izan zela eta erritmo onean jokatu zela uste du Argotek, eta «ez dugu asmatu aurkariaren jokaldie aurre egiten», adierazi du horren harira. Partida laburtu asmoz, lapurturiko bi baloiekin bi gol sartu eta garaipena lortu zutela azaldu zuen Argotek. Hala ere, garaipenik ez, baina kanariarren jokoari eutsi eta ongi jokatzeak gai izan zirela uste du entrenatzaileak.

Hurrengo norgehiagoka larunbatean, hilak 22, Valentziako Cabanyal F.S.F taldearen aurka jokatuko du Hegoaldeko, etxetik kanpo.

ARETO FUTBOLA ▶

Berdinketa baliotsuarekin itzuli dira Laskorainekoak

Zazpina gol sartu zituzten Laudioko (Araba) Lo + MRW-ren kontrako partiduan bi taldeek

I. ETXEBESTE

«Beste batzutan ere aldarrikatu dugunez, berdinketa batek beti izan ohi du garaipenetik eta porrotetik zertxobait, baina ez da ez bata ez bestea, guztiz alderantzizkoa, baizik. Laudion oztopo handiak saihestuaz eskuratutako zazpinako berdinketaren ostean ere, Laskorainekoon artean aho zapore gozoa nagusitzen zen, baina bazen salbuespenik». Halaxe ekin diote Laskorain areto futbol taldeko jokalariek joan den larunbatean Laudion (Araba) jokatu zuten neurketaren berri emateari.

Izan ere, sailkapeneko podiumean hirugarren postuan dagoen Lo+MRW taldearen aurkako neurraketa «bitxia eta harrigarria» izan zen tolosarren hitzetan. «Kantzaren bi norabideetan eraso joko defentsa jokoari menderatu zitzaion, eta edonork daki hau ez dela larunbateroko kontua. Suntsitzea erakitzea baino samurragoa izan ohi baita areto futbolearen ere».

Honela, Laudioko La Granja kiroldegi zaharkitura hurbildutako zalegoak gozatu ederri hartu zuela nabarmendu behar da Laskoraineko jokalarien ustetan. «Gol aukera eta gol ugari dastatzeko parada izan zuten eta azken jokaldira arte markagailuan emozioa gainezka izan zen».

Lehen zati osoan eta biga-

rrenaren hasieran horitxoak agindu zuten hala jokoan nola markagailuan. Altunaren, Barriolaren eta Telletxearen golei esker hiru aldiz aurreratu ziren Ikastolakoak, 0-1, 1-2 eta 2-3, baina ez zuten partida erabakitzen asmatu.

Ondoren, arabarren erreazioa etorri zen. «Lomasekoek abiadura ikaragarriko kontra hilkorrak eraiki zituzten, partidari erabateko itzulipurdia eman ziotelarik. Bederatzi minuturen faltan 5-3 mingarri bat erakusten zuen markagailuak eta horitxoak bost falta-rekin zeuden dagoeneko».

Azken minutu horietan, ordea, Laskorainekoek ondo baino hobeto egin zituzten jokaldiak. «Aurreko jardunaldiko ikasgaia gogoan, oraingoko erabateko itzulipurdia eman ziotelarik. Bederatzi minuturen faltan 5-3 mingarri bat erakusten zuen markagailuak eta horitxoak bost falta-rekin zeuden dagoeneko».

Azken minutu horietan, ordea, Laskorainekoek ondo baino hobeto egin zituzten jokaldiak. «Aurreko jardunaldiko ikasgaia gogoan, oraingoko erabateko itzulipurdia eman ziotelarik. Bederatzi minuturen faltan 5-3 mingarri bat erakusten zuen markagailuak eta horitxoak bost falta-rekin zeuden dagoeneko».

MENDIA ▶

Autobusak antolatu ditu Alpinok elurretarako

Asteburuan Candanchu-Astun-Sonportera joango dira; otsailaren 5-6an, Beretera

I. ETXEBESTE

Alpino Uzturre elkarteak autobusak antolatu ditu elurretara joateko. Asteburu honean Candanchu-Astun-Sonportera joango dira gustukoen duten eski mota praktikatzeneko: alpinoa, snowboard, fondoa... Bazkideek 45 euro ordainduko dute, eta besteek 50. Autobusa eta pentzio erdia daude prezio barnean. Fondo-

ko eski ikastaroa elkarteko monitoreekin egiteko aukera dago. Otsailaren 5-6an Beretera irtegan da autobusa. Alpinokoe proposamen bat egiten dute: larunbatean norberak bere kasara eskiatzea eta igandean Marxa Beret fondo-ko proban parte hartzea. Bazkideentzat 50 euro da bidaiak, eta besteentzat 55. Izen-ematea Alpino Uzturreren egoitzan egin daiteke.

ZIZURKIL ▶

Udal bulegoen
2005eko ordutegia
zehaztuta

Zizurkilgo Udalak ondorengo ordutegia izango du urte honetan zehar. Aurrerako bulegoa, asteleheneetik ostiralera, 8:30etik 13:00etara; udaletxea asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Bestalde, alkatea honako egun eta lekuetan egongo da: asteartetan Aurrerako bulegoan eta astelehena, asteazkena, osteguna eta ostiralean udaletxean.

ANOETA ▶

Ordutegi aldaketa
KZgunean apirila
erdira arte

Anoetako KZgunea ordutegi honetan izango da zabalik apirilaren erdira arte: astearte, asteazken eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00etara. Bestalde, tutorea hamabostean behin azalduko da. Hurrengo hitzordua bihar bertan izango da eta 9:00etatik 13:00etara egongo da tutorea KZgunera joaten diren kezka eta galderei erantzuteko.

ZUZENKETA ▶

Anoetako Udalak emandako 84.000 euroko aportazioa ez zen Anoetako Herri Ikastolarentzat, baizik eta Irura eta Anoetako udalek osatzen duten Herri Irakaskuntza Mankomunitatearentzat. Bera baita Anoetako Herri Ikastolako hainbat mantenu gastuaz arduratzen dena.

ALKIZA ▶ HIRIGINTZA

IMANOL GARCIA

Hil honen bukaeran edo otsailaren hasieran ekingo diote etxebizitza tasatuak egiteari Alkizan. Peru baserriaren azpiko lursailean, herri kaskora iritsi baino lehen, eraikiko dira hamasei etxebizitzak. Horixe izan zen izena eman zuten herritarren kopurua eta oraingoz kopuru hori eraikiko da. Hamasei hilabeteko epean amaituko dituzte lanak. Lursail horretan badago aukera beste lau etxebizitza eraikitzeko, «baina herritarrengandik eskaera jaso arte zain egongo gara» adierazi dio HITZARI Jon Roteta Alkizako alkateak.

Etxebizitza tasatuak eraikitzeko Udalak deitutako lehiaketa Construcciones Trati enpresak irabazi zuen. Lehiaketan enpresak ezarritakoaren arabera etxebizitza jasoko duten herritar bakoitzak 144.200 euro inguru (24.000.000 peze) ordaindu beharko ditu. Dagoeneko 6.000 euroko bermea jarri du bakoitzak udaletxean izena eman ondoren. Oraindik ez da zehaztu Udalak diru hori bueltatuko duen edo enpresari zuzenean emango dioten etxebizitzaren ordainketaren zati gisa.

Herrian geratzeko

Beste herri txikietan egiten den bezala, Alkizako Udalak etxebizitza tasatuak sustatu ditu herritarrek herrian bizitzeko. «Horregatik jarri genuen martxan proiektu hau, alkizarrak herrian geratzeko. Gazteak herrian bizitzen geratzea bizi-oztopo ekartzen du», azaldu du Jon Rotetak.

Etxebizitzek 91 m²-ko azalera izango dute eta lau eraikinetan izango dira, bakoitzean lau etxebizitza egingo direlarik. Garajea eta ganbara izango du



Peru baserriaren azpian eraikiko dira hamasei etxebizitza tasatuak. I. GARCIA

Laster ekingo diote Peru azpiko lursailean etxebizitzak egiteari

Construcciones Trati enpresak irabazi du lehiaketa eta hamasei hilabeteren buruan lanak amaitzea espero da

etxebizitza bakoitza. Batzuek garajea txikiagoa eta ganbara handiagoa izango dute eta besteek alderantziz, garaje handiagoa eta ganbara txikiagoa.

Construcciones Trati enpresak ere lursailaren hirigintza

lanak egingo ditu. Udalak ordainduko ditu lan horiek eta enpresak lehiaketan zehaztu behar izan zuen zenbateko kostua izango duen. 371.000 euro inguru (61.700.000 peze) da ezarritako prezioa. Aurrekontu honi aurre egiteko To-

lomendiren bitartez diru laguntzak eskatu ditu Udalak.

Beste enpresa eraikitzaile batek Peru azpiko lursail horretan etxebizitza bifamiliar bat egingo du, salmenta librean. Eraikuntza lanak urte amaieran hasteko asmoa dute.

hitza

txokoa

HITZAren HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY
KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ALEGIA ▶ FUTBOLA

Intxurrekoak pozik dira bere hiru taldeen lehen itzuliarekin

Lurraldekakoek lehen mailara igo nahi dute; jubenilek, berriz, maila mantendu



Lurraldekako bigarren mailan dago aurtien Intxurre eta igoera fasea jokatzeko ari dira. HITZA

NOELIA LATABURU

Denboraldiaren lehen itzulia amaitu berri den honetan balo-razioak egiteko unea izan ohi da. Intxurre futbol taldeak ere bere hiru taldeen nondik nora-koak aztertu ditu, eta pozik azaldu da orain arte izandako emaitzekin. Orokorrean, hoberruntz jo duela azaldu du Patxi Renobalesek, Intxurreko ardu-

radunetarikoa batek, aurreko urtearekin alderatuz. «Emaitzak berdintsuak izan badira ere, giro hobea dago taldean», azaldu du Renobalesek.

Santos Irazustabarrenaren gidaritzapean dagoen lurraldekako taldea bigarren mailan aritu da aurtengo denboraldian eta lehen fasean ondo aritu ondoren igoera fasea jokatzeko ari dira. Oso hasiera txarra

izan zuen taldeak, baina pixkanaka garaipenak heldu ziren. Aurtengo erronka nagusia, beraz, maila gorenera igoera lortzen da eta taldeko mutilek gogotsu ari dira hau lortzeko helburuz.

Jubenilak, berriz, lehen mailan daude eta lehenengo itzulia amaitu berri dute. Hauen erronka nagusia kategorian mantentzea da, postu on bate-

kin, izan ere, 18 taldeetatik bi bakarrik igoko dira eta hori lortzea «oso zaila» dela adierazi du Renobalesek. Dena den, mutilek ez dute batera zaila kategoriarik eustea, hamar puntu gehiago nahiko baitituzte. Talde honetan erdiak herrikoak bertakoak dira eta gainontze-koak inguruko herrietakoak. Joxean Otaño entrenatzailearen jokalarien artean, gainera, «oso ondo» ari diren lau kade- te daude. Gazteenak, azkenik, infantilak dira, Eneko Garmendiaren gidaritzapean. Hauek, lehenengo fasea jokatu ostean, kopa ligako lehen partidua jokatu berri dute. Talde hone- tako partaide gehienak Alegia- ko eskolako ikasleak dira. «Adin hauetan helburua kirola egiteko aukera izatea da», esan du Renobalesek.

Laguntzarako deia

Patxi Renobalesek, bestalde, taldearen ardura izatea zaila dela gogorarazi du eta deialdia luzatu du herriko guraso eta biztanleek lagun dezaten eki- poak eramaten edo publizita- tzea lortzen, besteak beste. «Bi lagun ez dira nahiko gauza guztiak aurrera eramateko», adierazi du Renobalesek.

ALEGIA ▶

San Joan kalea oinezko izateko herri galdeketa

Gaur arratsaldeko batzarrean erabakiko dira data, sistema eta informazio kanpaina

N. LATABURU

Aurreko urtarrilaren 10ean izan zen batzarrean, Alegia- ko San Joan kalean aparkatu ahal izango den edo oinezko bihurtuko den erabakitze- ko herri kontsulta egingo dela erabaki zen. Galdeketa hau epe motzean burutuko den arren, oraindik ez da data zehaztu; bertan parte hartuko dute San Joan eta Bideberrieta kaleko 16 urtez gorako biztanle guztiak.

Kontsulta hau bideratzeko talde bat osatzea proposatu zen batzarrean eta horretarako aurretik ere beste gai batzuk jorrazteko martxan egon zen Parte-hartze Batzordea bilduko da, gaur arratsaldeko 20:30ean Alegia- ko udallexean. Bertan erabaki eta bideratuko da galdeketa noiz egin, zein sistema erabili eta informazio kanpaina nola burutu, beste- ak beste.

San Joan kalea oinezko izateko ekimena udara aurretik dator Alegian, batzordeak proposamena landu zuenean. Ondoren egin diren batzarretan, ordea, herriko dendarien eta tabernarien kezua agertu ziren, kalea oinezkoentzat jartzearen aurkako sinadurak bildu zituzte- larik. Gaurko batzarra herri kontsulta honen gaineko puntu guztiak zehazteko ba- liagarria izango da.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxea. Alegiako Larraitz auzoan etxea salgai. 680 57 09 52.

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da, asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33

Sukaldaria-tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar da. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54

Neska. Neska behar da goizez. Umea zaindu eta ebeko lanak egiteko. 667 45 51 76. 15:00etatik 17:00etara



Gazte asko Lamiaken ipuin kontaketan

ALEGIA ▶ Etxeko gaztetxoek gerturatu ziren atzo arratsaldeko 18:00etatik aurrera Alegiako liburategira Lamiak taldeko ipuin kontaketa saioa entzuteko. Umeek bertara hurbildu zen ipuin kontalariaren istorioak arreta handiz eta liluraturik entzun zituzten eta liburategiaren gela leporaino bete zuten. Gaur, berriz, Abaltzisketako eskolan Pejo Añorga idazle eta kontalariaren ipuin kontaketa saioa izango da. NOELIA LATABURU

BERROBI ▶ HEZKUNTZA

Eskola berriak 150 haurrentzako lekua izango du

Hasi berriak dira Berrobiko eskola berria eraikitzeke obrak; 2006ko apirilean egitea irekiera ofiziala espero dute



Eraikitzen ari diren etxebizitzaren eta Iriarte jatetxearen artean altxatuko dute eskola berria. I.TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Behin proiektua eta aurrekontua onartuta, pasa den urtarrilaren 10ean hasi ziren lanean Berrobiko eskola berriarekin.

Eskolaren proiektuaren aurkezpen ekitaldia pasa den urteko uztailean egin zuten eta bertan izan zen, besteak beste, Koldo Arrese Hezkuntza Saileko kontseilariordea. Bertan azaldu zuten bezala, urte honetako urtarilean hasi dituzte eskola berria altxatzeko lanak. Amaiera, berriz, 2006ko apirilean ematea espero dute, eta ordurako zehaztu dute irekiera ofiziala.

Berrobiko eskola izango denak orain arte zegoenarekin alderatuz antzekotasun gutxi izango du. Proiektuaren arabe-

ra 1.000 m²-ko azalera izango du eta 150 haur eta gaztetxozkoen kapazitatea.

Bi solairutan banatuko da; lehenengoan Oit 3 urte bitarteko haurren gelak ipiniko dira. Eta, gainera, jatetxe zerbitzua izango da. Irakasleen gelek eta zuzendaritzaren bulegoek osatuko dute solairua.

Bigarrenean, 3 gela izango dira Lehen Hezkuntzako gaztetxozkoak. Liburutegia, erabilera anitzeko gela eta almazanak pisu honetan eraikiko dituzte.

Eskola berria eraikitzen ari diren etxeen eta Iriarte jatetxearen artean dagoen lur zatian egingo dute. Kanpoaldea hesiturik izango. Izan ere, haurrek jolasteko kirol futboleko edo bestelako kiroleko aritzeko zati izango du eskolako kanpoan.

Estalirik joango den patio zati batean ere jolastu ahaliko dute herriko haurrek.

Eskola zaharrarekin dagoen alderik nabarmenena, handiagoa eta bertan jateko aukera eskaintzeaz gain adin txikiagoak eman daitezkeela izango da. Eskola zaharra 2 urtetik 12 urte bitarteko haurrentzako prestatutako dago eta helduagoek Tolosara joan behar izaten dute. Berrian txikiagoek eta helduagoek lekua izango dute.

Proiektu honen aurrekontua 15 milioi eurokoa izango da. Herri honek biztanleriaren gorakada izango du urte gutxiren buruan eta horretarako prestatuturik egon behar da haur guztientzako lekua egon dadin eta herrian bertan gera daitezen.

IBARRA ▶

Uzturpe Ikastolaren Kultur Astea bihartik

Bihar haurrei buruzko hitzaldia eta larunbaterako haurren jokoak Belabietan

I.TERRADILLOS

Bihar emango zaio hasiera Ibarako Uzturpe ikastolako Kultur Asteari, eta bihartik datorren asteko igandeararte, urtarrilaren 30 arte, ekitaldi ugari prestatu dituzte.

Bihar hitzaldia prestatu dute 0-6 urte bitarteko haurren garapen psikologikoaren inguruan, hau da, haurren handitze prozesuan ematen diren aldaketak eta gorabeherak ulertzuz zenbait ohituren inguruko hausnarketak proposatu nahi izango ditu Jone Usabiaga hizlariak. Hitzaldi hau haur eskolan bertan izango da 18:00etan.

Bestalde, bihartik aurrera egunero izango dira ekitaldiak, ikastolan bertan edo Belabietan kiroldegian. Asteburu honetan eta zehazki larunbatean haur festa erraldoia prestatuko dute egun osorako izango delarik.

ASTE HONETAN ▶

Urtarrilaren 20tik urtarrilaren 30era luzatuko da aurtengo Uzturpe ikastolako Kultur Astea.

BIHAR

18:00. Uzturpe haur eskolan 0-6 urte bitarteko haurren garapen psikologikoaren inguruan mintzatuko da Jone Usabiaga.

ETZI

11:00-13:00 eta 15:00-18:00. Haur festa erraldoia Belabietan kiroldegian, gaztelu puzkarriak eta era guztietako jokoak izango dira.
18:00. Txokolate jatea egingo da Ibarako San Bartolome plazara hurbiltzen direnen artean.

BERROBI ▶

'Lore sorta eta koadroak' ikastaroa

Udaleko Kultur Batzordea Kutzarekin harremanetan jarri ondoren lehenengo aldiz aukera eskainiko zaie berrobitarrei bi ikastaroetan parte hartzeko 2005. urtean. Lehenengo ikastaroa *Lore sorta eta koadroak* izango da eta Mamen Gorostiagak emango du. Otsailetik abendurarte luzatuko da eta izen-ematea udaletxean (hilaren 21 arte) edo Kutxan urtarrilaren 24a arte. Bigarrena sukaldaritzaren inguruko izango da eta urrian hasiko da.

IBARRA ▶

Ipuin kontalari saioa gaur Kultur Etxean

Gaur 17:30ean haurrek ikuskituz politaz gozatzeko aukera izango dute Ibarren. Izan ere, Benito Izagirre kultur etxean ipuin kontalari saioa izango da ikusgai. Haurrentzako ikuskituz hau Maite Frankok zuzendua izango da. Saioa bereziki lau urtetik zortzi urte bitartekoei zuzendua izango da. Ibarako Udala Liburutegiak antolatzen duen ekitaldi honetara joateko herritar zein inguruetakoak diren haur eta gaztetxoek gonbita luzatzen zaie.

iragarki laburrak ▶



Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garbiarekin.

Belauntza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Erabat argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

Donostia. Rodil zeharkalean,

apartamendua salgai. Berritua; kanpoaldera.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.

Berritzeko premia.

Tolosa. Lurren etxebizitza salgai; hiru logela, sukalde, egongela, komona, bainugelara eta trastelekua. Garajea aukeran.

Tolosa. Erdigunean etxebizitza handia igogailuarekin, garajerik gabe.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan (Gorosabel, lurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

GIZARTEA ▶

Sanmartinetan ez, baina...

Gure herrietan oraindik ere etxe askotan hiltzen da txerria, negu hasierako tenore hauetan; etxe txerriak izateko eta ohiturari eusteko ere egiten da



Sangatu. Kokozpetik gantxo sartu eta mahaira eraman ondoren, lepotik sartzen zaio labana, odolustu dadin. JAIONE ASTIBIA



Erreketa. Txerria aurrea sabelez behera paratu, istor lehorraz estali eta sutu egiten da, dituen bizarrak erretzeko. J.ASTIBIA



Garbiketa. Eiltze-tapaekin, marruskatuz, eta urarekin, suak jarri dion azaleko beltzetasuna kentzen zaio. Ondoren labanaz garbitzen da. J.A.



Ireki. Barren hustu egin behar da: erraiak eta tripak ateratzeko, kanalean irekitzen da. Txerriaren gutzia baliatu daiteke. J.ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Txerri hiltzea. Duela urte gutxi arte, herrietan behinik behin, etxero egiten zen. Bestela ikusi ere ez eta, etxerako haragia izateko modu bakanetakoa zen. Etxean txerria gizendu eta hil. Urte guztirako, puskaka ez baino puxkaka-puxkaka, familiaren gosea ase, edo gutxitzeko behinik behin, oso balizko eta beharrezko zen eginkizuna. Errelikia modura gordetzen ziren ganbaran zintzilik.

Txerriak duen gutzia balizkoa duela esaten da. Eta halaxe izanen da: odola, berdura eta arrozarekin nahasita, hestean sartu eta odolkiak egiteko; gantzak urtuta koipetarako eta gelditzen diren *txantxiurrek* opilak egiteko; hezurrak; solamuak; sahieskiak; urdai eta urdaiazpikoak; hankak; txistorrak... Hezur eta mami, nahiz freskotan, nahiz gazituta edo salmueran, puska guztiek balukete bere balioa. Hala entzuteko aukera izaten da, horrelako lan hauetan ari izaten diren etxeetan.

Gaur egun, etxe askotan, etxe urdaiazpikoa eta txistorrak izateagatik hiltzen da txerria. Eta gero, gutxi asko, odolkiak ez dira egiten akaso, gantzak ez dira urtuko gehienetan, eta familiako ohituren arabera, txistorrak ez baino, txorixoak egiten dituzte... Gehienetan gutziazko jakiak izateagatik egiten da.

Baina lehen bezala, orain ere, *zeremonia* askoko eginkizuna izaten da txerri-hiltzea. Eguna aukeratzeko garaian esate baterako, hainbat kontu eduki behar izaten omen dira kontutan. Horrela, esate baterako, txerri emea irausi dagoeanean, ezin daiteke hil, urdaia harrotu eta gustu arraroa ere izaten omen duelako haragiak. Bada, 20 egunetik izaten dute irausaldia, 8 egun ez, edo, eta hobe omen da beste hainbeste itxoitea ere; Bestalde, ilargiari ere erreparatu behar omen zaio. Gure eskualdean, ilberriaren aritzen dira lan hauetan, hasieran baino, erditik gorakoa hobe. Beraz ikusten denez, bi ziklo horiek egokieran serratzen diren egunak ez lirake hainbeste ere. Esan dena, *zeremonia* dezenteko eginkizuna dela.

Dena den, festa egunaren kutsua ere badu txerri-hiltzeko



Kakoa. Erdiko adarra kokotzean sartuta, zintzilik jartzen da. J.A.

egunak. Lehen eta orain ere, egun honetarako auzokoak edo familiakoak joan ohi dira txerriaren lanak egiten laguntzera eta kafea pattarrarekin hartuz, umore ederrean egiten dituzte eginbeharreko guztiak. Eta ondoren, egunean berean, txerriaren gibela, tipularekin heze-heze prestatu eta elkarrekin otordua egiten dute.

Mahaian dena den, bestelako jakirik ere izaten da. Kontatzen dutenez, lehen baziren etxeak, laguntzera etorritakoei otordua emateko bestelako harakairik ere hiltzen zutenik, ardiak, edo oiloak... Goizeko lehen argizpiarekin lanak egin, gosaltzeko gibela jan eta handik aurrera, egun guztiko mahai festa egiten omen zen, karta-jokoan, bazkaria, afaria...

Eta haiei arreta emateaz gain, odolkiak zienta bat egin ere bai. Lan horiek guztiak egiten zituzten orduko emakumeek. Izan ere ohitura baitzen ahaideei eta auzokoei puska banatzekoa, alegia, odolkiak eta txerriki puskarren bat ematen zitzairen. Eta orduko familiak hainbestekoak izaki, txerriarena nahikoa ez eta, ardi-odola ere erabiltzen omen zuten odolkitarako. Lana erruz, beraz. Hori bai, «odolkiak bueltarekin» izaten omen ziren, esanerak ere halaxe dionez.

Banaketako lan hau etxeke umeez egiten omen zuten eta ordainetan, odolki-saria jasotzen zuten, beraien artean liskarrean ibiltzen omen ziren, banaketa egin nahiz. Orain ez da horrelako ibilerarik somatzen. Eta lanak ere banatuz izaten direla dirudi, denak aritzen dira denean. Horrela hobe.

Horrelako kontuak eta beste asko jakiteko ere aukera izaten da egun hauetan. Lehengo ohiturak, oraingo kontuak, aldaketak, berrikuntzak... Herri bakoitzean ez ezik, etxe bakoitzean ere desberdin.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrarendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarren autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttopa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte. Korreo kalea 20

(Tolosa). 943 676 013

Plaza. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aiz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 19a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzasketa, Adura, Abotzu, Alegia, Alkiza, Altoa, Amerieta, Aroeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itzategi, Itza, Larrin, Leizola, Lizartza, Orenain, Orma, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurritza.
Kultura Saia

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)
943
30 43 46

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

9

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

AGENDA ▶

Berrobi. Mamen Gorostiagak *Lore sorta eta koadroak* ikastaroa emango du otsailetik abendurarte. Hilaren 24a da izena emateko azken eguna Kutxan eta 21 arte udaletxean.

Ibarra. Kultur Etxean ipuin kontalari saioa izango da 4-8 urteko haurrentzat Maite Frankok zuzenduta. 17:30ean.

Ikaztegieta. Marboaren 5 eta Grako Candanchura eskiatzera joateko irteera antolatu du Udalak. Helduek 24 euro eta 11 urte artekoek 21 euro. Udaletxean eman daiteke izena, otsailaren 11 baino lehen.

Tolosa. Tolosako Arrantzaleak-en egoitzan (Soldadu kalea) egin daiteke arrantzarako federazioko aurtengo lizentzia. Gaur eta bihar 19:00etatik 20:30era.

Tolosa. Udaltzaingoaren trafikoko laguntzaileak hartu behar ditu Udalak Inauterietarako. Izen-ematea udaletxean.

Tolosa. 1956ko kintoen festa hilaren 30ean Urnietan. Izen-ematea Irrintzi eta Basarri tabernetan.

Tolosaldea. Asiako hegoaldean izandako itsasikararen kalteak arintzen laguntzeko kontu korranteak ireki dituzte. Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzu Departamentuak Kutxan eta Caritas Gipuzkoak BBVA, Kutxan eta Euskadiko Kutxan.

Tolosaldea. *Euskal karabana Sahararekin*, elika ezazu esperantza lelopean atuna, azukrea eta konpresak ari dira biltzen. Abaltzisketan eta Amezketan eskolan eta udaletxean; Alegian Aralar Institutuan; Baliarrainen udaletxean; Ibarren udaletxean eta Kultur Etxean; eta Ikaztegiatan herri eskolan, udaletxean eta kiroldegian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jose Manuel Oiartzabal. Mendiko argazkiak. Jubilatuen taberna.

Tolosa. Jose Enrike Ceberio. Margolanak. Lanbroa.

Tolosa. Nekane Fernandez. Akrilikoa. Sorron denda.

Tolosa. Manuel Arretxe. Koadroak. Saikin taberna.

Dardoen festa handia

IBARRA ▶ Jende ugari bildu da asteburu honetan Karlatz garagardotegiak antolaturiko dardo txapelketa ikustera; 84 parte-hartzaile izan dira denera



Espaniako Txapelketa eman zieten Iñaki Larrainzar eta Juan Sanz irabazleei zegozkien sariak. I.T.

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den ostegunean eman zitzaion hasiera Ibarra Karlatz garagardotegiaren bikotekako dardo txapelketari eta igandean amaitu zen. Bikote itsuen txapelketa izenez ezagutzen dira horrelakoak, hain zuzen ere, parte-hartzaileek bikotekidea nor izango duten ez baitakite, hau zozketa bidez zehazten delako.

Txapelketak iraun zuen lau egunetan jende ugari gerturatu zen garagardotegira 84 jokalariek euren dardoekin zer egiteko gai diren ikustera. Igandea izan zen egun handia, azken partidak jokatzea gain sari banaketak egin zirelako.

42 bikoteetatik zortzi hoberekin irabazi zituzten sariak; hauetaz gain, omenduak ere izan ziren, txapelketa hauetan jarraitzaile eta laguntzaile bezala merezimendua zutenei. Lehenengo bikotea Iñaki Larrainzarrek eta Juan Sanzek osatua izan zen. Aitor Billalabeitiak eta Alvaro Guiradok osatua bigarrena eta hirugarren geratu zen Jon Larruskain eta Oskar Martinezek osaturiko bikotea.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Sara Ubeda Arbillaga.

Lau urte hilaren 17an.
Zorionak Aintzana eta Periko



URTE ASKOAN
Uxue Aizpurua Ubeda.

Gaur urtebete. Zorionak.
Zure madrinak eta padrinok.



URTE ASKOAN

Bedaioko ama-amona
Joakinari. Muxu patoloak bere
urtebetetze egunean. Etxekoien partetik.

HITZA,
zorion agurren
tarte

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberririk...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!